



# TUTORETZA PLAN GIDARIA

## AURKIBIDEA

Tutoreak Ikastolan .....	5
Konpetentzia orokorrak tutoretzan.....	
Tutoretza Jardueren Plana .....	
TUTORETZA IKASLE TALDEEKIN	
Lehen Hezkuntza	
Ikasmaila 1 .....	11
Ikasmaila 2 .....	
Ikasmaila 3 .....	23
Ikasmaila 4 .....	
Ikasmaila 5 .....	
Ikasmaila 6 .....	
Bigarren Hezkuntza	
Ikasmaila 7 .....	
Ikasmaila 8 .....	
Ikasmaila 9 .....	
Ikasmaila 10 .....	
Ikasmaila 11 .....	
Ikasmaila 12 .....	
TUTORETZA IKASLEEKIN BANAKA .....	
TUTORETZA BESTE IRAKASLEEKIN .....	
TUTORETZA FAMILIEKIN .....	
TUTORETZA ERAKUNDEEKIN .....	
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOEN TAULA .....	

## **Tutoreak ikastolan**

Eskolan, edozein hezkuntza erakundetan bezala, gero eta gehiago ikusten da partaide guztien ekarpenaren eta lankidetzaren beharra. Horrek, irakasleen, kontsultoreen, orientatzaileen, familien, beste eragileen eta ikasleen arteko eraginak sustatzera garamatza ezinbestean, esku hartze ahaleginak bateratze aldera.

Ikastolen antolakuntza egitura, ikasleen askotarikotasuna, helburuen aniztasuna eta, oro har, horien funtzionamendu konplexua dela-eta, egokia dirudi ikasle talde bakoitzari bere tutorea atxikitzea.

Tutorea ikasle bakoitzaren eta taldearen erreferentzi puntua da, hezkuntza prozesuak sistematizatu eta pertsonalizatzeko erantzukizuna hartzen duena.

*Ezagutza osagaiez gain, nortasun afektiboa duen irakaslea da tutorea, ikasle taldearen hezitzaile gisa jarduteko eta irakasleen elkartasuna eta lan giroa hobetzeko berariazko gaitasuna duena eta, gainera, irakasle talde horien, ikasleen, familien nahiz beste hezkuntza eragileen artean lokarri eta bitartekari dena. (Benavent, 2007)*

*Tutorea ikasle talde baten irakaslea da, printzipala Lehen Hezkuntzan, bere gain zeregin jakin batzuk hartzen dituena eremu burokratikoan eta harremanei dagokionean. ...Ikasleentzat pertsona erreferentea da, hainbat hezkuntza esperientzia eskaini, eta horiek batzen eta koordinatzen laguntzen diena. (García Fernández, 2009)*

Oinarrizko Hezkuntza aldian eginkizun eta jarduera orokor hauek dagozkio: ikasleen egokitze bideak erraztea, konpetentzien eraikitzea eta hezkuntzako esku hartzea koordinatzea.

Hori guztia betetzeko funtsezko ditu irakaskuntza prozesuak ezagutu eta antolatzea, ikasleak banan bana ezagutzea, curriculuma ezagutzea, familiekin harremana bermatzea, lan didaktikoa koordinatzea eta inguruarekiko harremanak erraztea.

Tutoretza aurrera eramateko garrantzitsua da Tutoretza Jardueren Plana egitea, ekintzak antolatzeko jarraibideen eta irizpideen erreferentzia baita. Tutoretza Jardueren Planak tutorearen esku hartzea sistematizatzen du ikasleei taldean nahiz banaka dagokionean, familiekin izan beharreko harremanetan, eta irakasleekin eta beste eragile batzuekin dagoen elkarlan eremuan.

Honela zehazten dira Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Tutoretza Plana egiteko emandako orientabideetan aurreko eremu horietako bakoitzean tutoreek dituzten zereginak:

### **1.- Familiei eta/edo legezko tutoreei eta beste gizarte-eragile batzuei lotuak:**

- Tutoreak ikastetxearen eta hezkuntza-etaparen berri ematea gurasoei eta/edo legezko tutoreei.
- Banakako hezkuntza-prozesuaren jakinaren gainean jartzea, eta lankidetzat eskatzea.
- Familiak eman dezakeen informazioa jasotzea, ikaslea eta haren familia-testuingurua hobeto ezagutzeko.
- Gurasoei aholkularitza ematea; besteak beste, alderdi hauetan: ikasketa-eta portaera-arazoaren konponketan, ikasketen antolaketan eta plangintzan, eta ikasketa- eta lanbide-arloko erabakiak hartzeko garaian.

## **2.- Ikasle-taldearen irakasleei lotuta**

- Bere taldeko irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioan, bai ebaluazioan, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuko banakako egoeren eta egoera orokorren azterketan.
- Tutoretza-plana jakinaraztea, adostea eta garatzea, eta planetik sortzen diren jardueretan esku hartzea eta elkarlanean aritzera bultzatzea.
- Ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa ematea maila horretako irakasleei, eta programazioan, ebaluazioan eta hezkuntza-harremanean duten inplikazioa jakinaraztea.
- Bere taldeko ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta ebaluazio-prozesua egiteko saioak antolatzea eta saioen buru izatea.
- Curriculumaren egokitzapenetan laguntzea: curriculum-egokitzapenak, hezkuntzan berariaz esku hartzeko proiektuak, curriculum-aniztasuneko programak, premia bereziak dituzten ikasleentzako errefortzu-jarduerak eta haien hezkuntzan esku hartzeko jarduerak.
- Ikasleen ikasketa-zailtasun orokorrenei erantzutea, eta, ahal izanez gero, aurre hartzea, programazioari beharrezko egokitzapenak eginez, eta banakako hezkuntza-premiei ere erantzutea, horrela, beharra ikusiz gero, curriculum-egokitzapena egiteko.
- Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta, irakasle-talde baten aholkularitzarekin, eskola-orientazioko banakako txostena egitea, familiak jakinaren gainean jartzeko eta ikasleak orientatzeko.
- Irakasgaien estatistikak eta ikasketa buruak eskatzen dituen datu guztiak betetzea, bai eta tutoretza-lanetik sortutako ikasleen ikasketa-agiriak ere.

## **3.- Irakasleei lotuta:**

- Ikastetxean eta lagun-taldean ondo integratzen laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezatela bultzatzea.
- Unerik larrienetan ikasleei aholkuak ematea: ikastetxe berrian sartzean, hezkuntza-ziklo edo -etapa aldatzean, hautazko ikasgaiak aukeratzean, lan-mundura igarotzean...
- Ikasketa ibilbideak egiten eta lan mundua arakatzen laguntzea, bokazio-heldutasuna eta erabakiak hartzeko prozesuak bultzatuz, eta auto-orientaziorako trebatuz.
- Ikasleen ikasketa-prozesuen jarraipen orokorra egitea, hezkuntza-erantzun eta/edo laguntza egokiak emateko.
- Ikasleen eskaerak, kezak, kexak... bideratzea, eta, taldeko ordezkariarekin eta ordezkariordearekin lankidetzan, gainerako irakasleen eta zuzendaritza-taldearen aurrean bitartekotza egitea, sortzen diren gaietan.

Honi guztiari ikasle taldean tutoreak, bere eginkizunen barruan, duen irakaskuntza jarduera gehitzen zaio. Tutoretzaren bidez, izatez arlo guztietakoak diren konpetentzien, edo bere osagaien, eraikuntza indartzea eta biltzea ere nahi baita. Alde honetatik tutoretzak curriculum izaera dauka. Edozein arlotan bezala, helburu orokorrak – konpetentzien ikuspegitik ipinitakoak-, eta dagozkien konpetentzi espezifikokoak zein diren erabakitzea eskatzen du honek; hauekin bat etorriko baita ikaskuntza jardueren antolakuntza.

Tutoretzan curriculumari dagokion atalerako 6 konpetentzia orokor proposatzen zaizkigu Euskal Curriculumean.

## **Konpetentzia orokorrak tutoretzan**

### **1-Ikaskuntza prozesuez jabetzea eta erantzukizunez eta diziplinaz planifikatzea, eskatutako balibideak eta eginkizunak zehatzuz, hobetzeko premiak identifikatzeko eta hurbileko egoeretan praktika eta metodo onak aplikatzeko, bai eta denbora hobeto erabiltzeko ere.**

Informazioa biltegitratzea edo erabiltzea errazten duten prozedurez edo jardueraz osatutako segida batean gauzatzen da ikaskuntza. Ikasteko estrategiak menderatzeak aukera ematen dio ikasleari bere jarduerak aztertzeko eta balioesteko, hezkuntza prozesua erregulatze aldera. Ikasteko estrategiak zein diren jakiteko, norberak ikasteko prozesuan duen funtzionamendua jakin behar du. Meta-ezagutza hori lortzeko, ezinbestekoa da praktikari beran, plangintzari, jarduerari eta produktuei buruzko hausnarketa testuinguruan egitea. Helburua nork bere buruaren eraikitze prozesuan izaten den ikaskuntzaren esperientziaren esanahia berrikustea da, eta hortik ikastea. Plangintzak ikasketa eraginkorragoa izaten laguntzen du. Plan horrek ikaskuntza prozesua antolatzen laguntzen dio ikasleari, plangintzari berari buruz hausnartzera behartzen baitu ikaslea. Ikasleek egoera bakoitzean egokienak diren estrategiak aukeratzeko gai izatera eta praktikan planifikatzen jakitera iritsi behar dute. Hori behar bezala egiten bada, denbora hobeto aprobetxatzen da. Lanean denbora antolatzeko, jardueretan jarraitu beharreko urratsak zein diren aurreikusi behar dira, bai eta lehentasunak zehaztu ere.

### **2-Lanarekin lotutako banako eta gizarte faktore erabakigarriak norberarengan eta ingurunean etengabe ikertzea, erabaki profesionalak hartzeko eta lan ibilbidea kudeatzeko gaitasuna errealismo handiagoz garatzeko.**

Garapen profesionalak bi baldintza behar ditu: etengabe haztea eta ezagutzaren egiturak aldatzea. Lan mundua eta pertsonak etengabe aldatzen dira. Hori dela eta, bi alderdi horiek integratuta garatzeko beharra ez da inoiz etengo. Orientazio profesionalaren azken helburua erabaki profesional independenteak eta arduratsuak har ditzan pertsonari bere bizitza gidatzeko gaitasuna eskuratzeko aukera ematea da. Erabakiak hartu ahal izateko, ezinbestekoa da informazioa prozesatzeko trebetasunak behar bezala garatzea. Ikertzeko jarrerak aukera emango die ikasleei galderak egiteko, hipotesiak egiteko, beren buruei eta inguruko munduari buruzko datuak biltzeko, erronkak bilatzeko eta ikuspuntuak aldatzeko.

### **3-Familian, eskolan, jolas eremuan edo lan giroan behar bezalako harremanak izateko beharrezkoak diren trebetasunak eta taldeen funtzionamendua baldintzatzen duten faktoreak iritzi kritikoaz aztertzea eta balioestea, eremu horietan parte hartzeko eta proiektu partekatuak egiteko.**

Gizarte testuinguruan, gainerakoekin komunikatzera behartzen gaituzten egoerak daude: elkarrizketak, eskaerak, solasaldiak... Beste pertsona batzuekin hitz egiteak esaten denarekin, esateko moduarekin, entzuten denarekin, erabiltzen ditugun keinuekin, sentimenduak adierazteko moduarekin, iritziekin eta abarrekin lotutako alderdiak kontrolatu beharra dakar. Komunikazioan, hitzez gain, garrantzitsuak dira hitzik gabeko trebetasunak; esate baterako, keinuak, gorputz jarrerak, hurbiltasuna, begirada edo ahotsaren tonua. Norberak gizarte trebetasunak garatzen ikasteak gainerakoekin harreman hobeak izaten laguntzen digu, eta gatazkak prebenitzen ditu. Lan kooperatiboko taldeetan, ezaugarri nagusi hauek identifikatzen ditugu: pertsonen arteko tratua zuzena, elkarren arteko mendekotasuna, norbanakoaren erantzukizuna, eskuzabaltasuna eta talde prozesamendua. Elkarlaneko trebetasunek atzera - elikadura egiteko aukera ematen dute, eta talde horretako kideen inplikazioa bultzatzen dute. Taldeak bizia duten sistemak dira, eta hobera edo txarrera egiten dute. Orientatzeko jardura den aldetik, ezinbestekoa da aldiro taldean sortzen diren funtzioak eta harremanak (kohesioa, botere harremanak, balioak eta arauak, egitura, koordinazioa...) berrikustea, errendimendua ziurtatzeko eta taldearen hobekuntzan eragina izateko.

**4-Gaitasun fisiko, kognitibo eta afektiboei dagokienez, taldeko gainerako kideetatik bereizten gaituzten berezko dohainak eta jokabideak aztertzea, gauzak egiteko gai den pertsona preziatua sentitzeko eta hobeto kokatzeko, bai nor bere buruarekiko, bai gainerakoekiko.**

Tutoretza arloaren helburuetako bat faktore fisikoekin, intelektualekin eta emozionalekin lotutako auto-ezagutza handiagoa izatea da. Derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan, nerabearen bizitzan, itxura fisikoan, jokabidean eta gogo aldarlean aldaketa handiak eragiten dituen garai bat hasten da, askotan asaldura handikoa. Pertsonak modu eraginkorrean eta positiboan eraiki dezagun, oinarri ezin hobea da errealitatean egokitutako auto-estimua positiboa lortzea. Aintzat hartzen gaituztela sentitzeak eta gure mugak non dauden jakiteak aukera ematen du gure ahalmenen pertzepzio argia izateko, bai eta asertibo agertzeko ere, eta, horren ondorioz, irudi sendoa –gure aukeretara egokitutako benetako irudia– proiektatzeko.

**5-Inguruneko gizarte egoerei buruz informazioa izatea eta irizpide zuzenez balioestea, injustiziaren eta besteen egonezinaren aurrean sentsibiltatea bultzatzeko, beste sentimendu eta ikuspuntu batzuk ulertzeko gai izan daitezen eta horiei buruz kritika arrazoituak egin ditzaten.**

Elkartasun sentimenduak, besteen mina ulertzeko sentimenduak eta bidegabekeriarekiko sentimendu kritikoak sakonago garatzen ditugu, besteen sentimendua, egoera edo ikuspuntua ulertzeko gai bagara. Helburua enpatiarako ahala garatzea eta eskolako eta gizarteko egoera ugaritan aplikatzea da. Gure balioen eta jokabideen artean dauden desadostasunez ere jabetu behar dugu. Tutoretzak desadostasunak argitzen lagun dezake, bai eta balio eskala sendoagoa eraikitzen ere.

**6-Abian jarritako ekintzak eta testuinguruan duten eragina ebaluatzea, proposatutako helburua, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitza kontuan hartuta, ekimenaren diseinuan hobekuntzak proposatzeko eta lorpen txikiak eta borondatearen indarrak ahaleginean jarraitu eta itxaropen positiboak sortu ahal izateko duten balioa onartzeko.**

Beti ez da lortzen nahi duguna, baina beti lortzen dugu zerbait. Helburu horrekin lotuta, zenbait faktore aztertu behar dira: lorpenerako bidean ekintza bultzatu duten aldagaiak zein diren, zer aldagaik zaildu eta erraztu duten, benetan zein faktorek eragin duten hori ez egitea, halakorik gertatu bada. Horrez gain, lortu nahi zen helburuaren arabera, ekimena gauzatzeak izan duen inpaktu positiboa edo negatiboa balioesten da. Oinarritzat denok ekintzaileak garelako hartzen badugu, konpetentzia hori lortzeak egoera berezi batean jartzen du gaztea. Egoera horretan, gazteak hainbat gauza egin behar ditu: pertsona bakoitzak lortutakoa zer elementuren ondorioz lortu den aztertu, bere proiektuan konpromisoa hartu eta ekintzaileek dituzten elementu komunak balioetsi (esate baterako, esku artean duenaren esanahia eta garrantzia, amore ez emateko borondatearen indarra, auto-diziplina eta arrakasta partzialaz gozatzeko ahalmena).

## **Tutoretza jardueren plana**

Sarreran aipatu dugu zeregin eta helburu hauek betetzeko garrantzitsua dela Tutoretza Jardueren Plana egitea, mailaz maila ikasle taldeei atxikitako ekintzak jasoko dituen. Ondoren, Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako Tutoretza Plan Gidaria aurkezten dugu. Gidaria diogunean, irakasle-tutoreek plana egiteko lagungarri izan nahi duela diogu, eta ez hartu eta dagoen-dagoenean zuzenean aurrera eramateko programa. Plan Gidari honetan ekintza zerrendak agertzen dira. Lehenik mailaz maila ikasle taldeei tutoreek aurkeztuko dizkienak. Jarduera bakoitza era honetara azaltzen da:

**EKINTZAREN IZENA.** Tutoretza saio horretan egiten dena adierazten du hiruzpalau hitzetan.

Jardueraren deskripzioa. Labur, baina xehetasun gehiagorekin, tutoretza saioa zertan datzan agertzen da.

Materiala. Baldin eta jarduera material jakin batean badator zein material den aipatzen da.

Jarduera zerrendak tutoreek bere behar izanetara egokitu eta antola ditzakete, bai maila bateko bestean sartuz edo ikasturtearen barruan beste hurrenkera bat emanaz.

Ondoren, ikasleekin banaka, irakasle taldeekin, familiakoekin eta hezkuntzan eragile diren lankideekin nahiz erakundeekin egiteko jarduera zerrenda bana dator, ez guztiak burutzeko, ikastola bakoitzean beharrezkoak ikusi eta ondo datozenak hartzeko baizik. Eredu hauentzat ez da mailaz maila ekintza multzorik bereiztu, maila batzuetan eta besteetan zereginak antzekoak izaren baitira.

**TUTOREA  
IKASLE  
TALDEAREKIN**



**LH 1**

## Ikas maila: 1

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
ONGI ETORRIA EGIN Tutorearen eta ikasleen ongi etorria eta elkar agurtzea. Tutorea ikasleen ondoan esertzen da. 'Zein naiz ni?' galderari erantzuten diote denek banan bana. Eta gero aldamenekoari galdetu: 'Zein zara zu?'	Ikasturte hasieran 1	
IKASGELA GEUREA EGIN Gelari begiratu eta dagoenaz hitz egin. 'Zer dago?', 'Nolakoa da?'. Ondoren apaingarri bat egiten dute ikasleek gelarako. Materialak eta tresnak bere lekuan jasotzeko eskatzen du tutoreak. Jokabide honen garrantzia ikusarazten du bukaeran.	1	
LANA TALDEAN EGIN 1. LANA TALDEAN (hasierakoa). Taldean lanean hasteko unea da. Tutoreak taldeak egiten ditu hurrengo egunetan lana elkarrekin egin dezaten. Talde bakoitzak bere ikurra du eta margotzeko edo marrazkia egiteko eskatzen zaie. Taldeak ondorengo galderei erantzuten die gero: 'Zein talde gara?', 'Zer dugu egiteko denon artean?' 2. LANA TALDEAN (ondorengoa). Ipinitako lana bukatu ondoren egiteko saioa da. Era honetako galderei erantzun diezaiekete ikasleek: 'Zertan jardun dugu?', 'Lana bakarrik egin al dut, ala denon artean?' Laguntzarik izan al dut?', 'Zeini eskatu diot laguntza?' 'Lagundu al diot inori?', 'Zein izan gara lankide?'	2	3
IKASTOLAKO IRAKASLEAK EZAGUTZEN HASI Ikasleek marrazkia edo collagea eginez ikastolan zein irakasle ezagutzen dituzten adierazten dute. Horietatik bere irakasleak bereizi eta baita denbora gehiena beraiekin ibiltzen dena ere.	1	
IKASKUNTZA JARDUERETAN JARRAITUTAKO PROZESUA AZTERTU. Irakasleak aukeratutako lan batean jardun ondoren jarraitutako prozesua gogoratzen da. Adib: esku lana egin ondoren, nola egin duten hiru urratsetan laburtzea eskatzen zaie. 'Lehenengo ....., ondoren ..... eta azkenean .....'. Hitzez adierazi dezakete edo irudiak erabiliz.	1	4
LANAK BERRIRO IKUSI. Astean egindako lanei begiratu, ordenatu eta hitzez adierazten dute astean zertan jardun duten . Ondoren, lanetako bat hartu eta antzeko prozesua jarraitzeko beste zein lan egin dezaketen pentsatzeko eskatzen zaie.	1	4 11

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>EGIN BEHARRAK ARDURAZ HARTU. 1. EGINKIZUNA BEREGAIN HARTU. Guztiek egingo dituzten ariketez gain, ikasleetako batzuei jakineko zereginak ipintzen zaizkie astean egunero egiteko (landareak ureztatu, liburuak banatu, egutegian data ipini, ...). Arbelean idazten dira eginkizunen zerrenda eta arduradunen izenak. Talde osoari balioespen fitxa erakutsi (asteko egunak eta zereginak dituen taula) eta balioespen irizpidea argitu (berdea=ongi, horia =hola-hola). Ikasle arduradunak berak betetzen du balioespen taula. 2. BALIOESPENA TALDEAN. Besteek arduradunen asteko lana nola ikusten duten agertzeko saioa da. Era honetako galdera egin daiteke talde osoan hitz egiteko: 'Nola joan dira aste honetako betebeharrak? '</p>	2	11
<p>LANAK BERRIRO IKUSI. Astean egindako lanei begiratu, ordenatu eta hitzez adierazten dute ikasleek astean zertan jardun duten . Lan horietan zailena zer izan den ikusiko dute ikasleek, eta zailtasunari aurre nola egin dien adierazi.</p>	1	4 1
<p>SOZIOGRAMA EGIN Ikasleen arteko harremanak, azpitaldeak eta batasun maila ikusteko informazioa jasotzeko saioa da. Kideen izenen zerrenda ematen zaio ikasle bakoitzari. Oso lagun onak diren ikasleei 3a ipiniko zaie, lagunak dituen 2a, eta hala holako lagunei 1a. Oharra: Orria betetzerakoan giro abegikorra izatea garrantzitsua da.</p>	1	
<p>LAGUNARTEA EGIN Tutoreak taldeak egiten ditu, taldeka jolasean ibiltzeko. Kartulina batean denon argazkiak ipintzen dira eta ikasleek adieraziko dute zeinekin ibili diren jolasean.</p>	1	
<p>LAN TALDEAK BALIOETSI 1.TALDE FUNTZIONAMENDUA BEHATU Tutoreak irudi bat ematen die ikasleei. Irudi honetan haur taldea ari da zerbait egiten (elkarrekin jolasean, abesten, gela txukuntzen, ...) Irudiari begiratuta haur bakoitza zehazki zertan ari den adieraziko dute ikasleek. Denen artean hitz egin ondoren esaldi hau idatziko dute irudiaren barrenean: 'Lana denon artean egiten dugunean errazago bukatzen dugu'. Eta galdera honi erantzuteko eskatzen zaie: 'zer gertatuko litzateke elkar hartu gabe bakoitzak bere aldetik jardungo balu? 2. TALDEAN EGITEKO LANAK IDENTIFIKATU Marrazkiak eginez edo idatziz adierazi zein lan egiten diren hobeto taldean. Marraztu eta margotu lanean ari den talde bat.</p>	2	7

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ / ZENBAT SAIO</b>	<b>Konp.</b>
<p>NORBERE JARRERAK ETA BESTEENAK BALIOETSI Egoera gatazkatsu bat aurkezten du tutoreak. Gertaera hipotetiko edo benetako honen aurrean honako eskema erabil daiteke, denon artean hitz egiteko. -Zer gertatu da? -Zer egin daiteke? -Ze irtenbide dago?</p>	1	6
<p>ELKARRI LAGUNDU Tutoreak ipuina kontatuko du. Ipuinean laguntza beharrean den norbait agertzen da. Ipuina bukatuta, laguntza eske dagoenaren egoera gogoratzen du tutoreak; eta horretaz galdetu: zergatik eskatzen duen laguntza, inork laguntzen dion, nola laguntzen dion. Ondoren ikasleei eskatuko die pentsatzeko taldean zeini lagundu diezaioketen eta zertan.</p>	1	8
<p>ZEREGINAK AURREIKUSI Tutoreak hurrengo 3 egunetan egiteko fitxak ipintzen ditu aukeran (5 edo) . Ikasle bakoitzak 3 fitxa aukeratzen ditu eta taula batean adierazten du zer egingo duen egun bakoitzean.</p>	1	9
<p>INFORMAZIOA BILATU ETA HAUTATU. Tutoreak emandako gaietatik (loreak, zuhaitzak, jostailuak, jantziak, janariak) bat hautatu eta irudiak bilatzen ditu ikasleak (6 edo). (Aldizkari zaharretan aurki daitezke). Irudiak ebaki eta horietatik antzekoenak diren 3 hautatu. Ikasleari irudiak non aurkitu dituen eta hautatu dituen hirurak zertan diren antzekoak esateko eskatuko zaio, banan bana besteen aurrean.</p>	1	4
<p>GATAZKA EGOERAK DESKRIBATU Solasaldi gidatua: ikasleek azken aldian ikusi dituzten gatazka gertaerak kontatzen dituzte.</p>	1	
<p>BESTEEI BARKATU ETA BARKAMENA ESKATU Gatazka eta gaizki esanak agertzen diren gertaerak aipatzen ditu tutoreak. Ikasleekin solas egiteko galderak: -nola jokatu zenukete zuek? - barkatzeko eskatuko al zenioke? -barkatuko al zenioke?</p>	1	5

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
----------	--------------------	-------

### **EGITEKO LANAK HAUTATU, ANTOLATU ETA EBALUATU**

1. **NORBERAK EGITEKO LANAK HAUTATU ETA ANTOLATU** Talde osoan. Aurreko bi egunetan eskolan zer egiten jardun duten gogoratu eta esateko eskatzen die tutoreak ikasleei. Koadernoetara eta lanei begiratu egin daitezke hau; ekintzen adierazpena egiten ohitzea da helburua. Ondoren, datozen hiru egunetako arratsaldeko azken orduan ze lan egingo duten erabakiko dute ikasleek, bakoitzak berea. Tutoreak emandako fitxan adieraziko dute nola antolatu duten (taula moduko lauki batean, goian egunak agertzen dira. Irudiak ere erabil daitezke ekintza adierazteko: margotu, irakurri, ebaki, marraztu, idatzi, puzzlea egin, matematikako ariketak, musika entzun,...).

2. **NORBERAK EGITEKO LANAK HAUTATU, ANTOLATU ETA EBALUATU** Talde osoan. Aurreko hiru horietan egindako aurreikuspena nola joan den galdetzen die tutoreak ikasleei. Ondoren, datozen beste hiru egunetako arratsaldeko azken orduan ze lan egingo duten erabakiko dute ikasleek, bakoitzak berea. Tutoreak emandako fitxan adieraziko dute nola antolatu duten (taula moduko lauki batean, goian egunak agertzen dira. Irudiak era erabil daitezke ekintza adierazteko: margotu, irakurri, ebaki, marraztu, idatzi, puzzlea egin, matematikako ariketak, musika entzun,...)

3. **TALDEARENTZAT ZEREGINAK HAUTATU, ANTOLATU ETA EBALUATU** Talde osoan. Aurreko hiru horietan egindako aurreikuspena nola joan den galdetzen die tutoreak ikasleei. Gero hiruko taldeak egin (tutoreak egin ditzake) eta datozen hiru egunetako arratsaldeko azken orduan egingo dutena erabaki, antolatu eta, lehen bezala, taulan adierazita ipiniko dute.

#### 4. TALDE LANAZ SOLAS EGIN

Talde osoan. Taldean lan saioak nola joan diren eta zer eman duten agertuko die taldeek banan bana besteei.

Tutoreak elkarri zerbait galdetzera animatuko ditu ikasleak.

4 9 10

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
DENON ARTEAN ERABAKI Hurrengo astean-edo, arratsalde batean irteera egitekoak direla eta, zer egin erabakitzen ahalegintzen dira denen artean. 1. PROPOSAMENAK AURKEZTU, BILDU ETA HAUTATU. Arratsalde horretan zer egingo luketen pentsatzeko eskatzen die tutoreak ikasleei, tarte bat hartuz. Ondoren ikasleek banan bana proposamenak aurkeztuko dituzte, eta tutoreak denak jasoko ditu zerrendan, baita berea ere. Egin daitezkeenak hautatu, besteak zergatik baztertzen diren argi azalduz. Aste barruan gai honi buruz elkarren artean hitz egiten joateko esaten die tutoreak. 2. BAT AUKERATU Hautatu ziren proposamenetatik bat aukeratzeko eskatzen die ikasleei banan bana. Denen erantzunak bilduko dira zerrendan. Aukera bat baino gehiago agertzen bada, erabakia nola har daitekeen galdetzen die ikasleei tutoreak. Erantzunak jasoko dira zerrendan. Ikasleek bere iritzia ematen dute erabakitzeko moduez.	2	10
IKASTOLAKO LANGILEAK EZAGUTU Ikastolan lana egiten duten pertsonak ezagutzen joateko ariketa da. Ikasleek ikastolan ezagutzen dituzten andereño, irakasle eta beste langileen marrazkiak egingo dituzte eta bakoitzari bere izena ipini. Ondoren denen artean solas egingo dute, banan bana zeinen marrazkia egin duten eta bakoitzak zer egiten duen adieraziz.	1	
IKASTOLEN JAIEKIN BAT EGIN Tutoreak bukatu gabeko marrazkia ematen die ikasleei eta guztion artean osatzen joango dira. (Adibidez: Senpereko paisaia da, aintziraren inguruan inor ez dabil. Ikasleak ibiltariak, beste hainbat lagun, Herri Urratseko ikurrak eta beste hainbat osagai marrazten joango dira.) Marrazkia handia bada taldeka egin daiteke.	1	

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ / ZENBAT SAIO</b>	<b>Konp.</b>
<p>GALERAREN AURREAN BERRIRO SAIATU Galerak duen eragina ikusi eta aurrera nola jarraitu erabaki beharko da ikasleekin. Horretarako, ikaskuntza egitasmoan zehar galera gertarazten du tutoreak, nahita, baina ikasleek ezer jakin gabe. Egoera horretan zer egin eta nola jarraitu galdetzen die tutoreak. (Adibidez: Ikasleek landare haziak ipini dituzte nola ernetzen diren ikusi eta hazten joan ahala marrazkiak egiteko. Batzuk ez dira erne. Zer egin? Hurrengo goiz batean erne eta hazten ari diren landare guztiak zimelduta agertu dira. Zer egin?)</p>	2	1
<p>IKASTURTEAREN BUKAERAKO AGURRA</p>	1	

LH 2



## Ikas maila: 2

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>BAKOITZAREN EZAUGARRIAK BALIOETSI Ume bakoitzari "Honelakoa naiz ni" fitxa ematen zaio eta izena, urteak, eta ikastetxea idaztea eskatu. Ondoren, ahalik eta marrazki politena egingo du horma-irudian jartzeko. Ondoren, "Guztiok gara desberdinak eta bereziak " esaldia emango zaie margotzeko eta etxera eramateko. E.J. <i>TUTORETZA LEHEN HEZKUNTZAN</i>: Honelakoa naiz ni. 3.1 jarduera</p>	1	6
<p>IKASKIDE GUZTIEN ARTEAN ANTZEKO EZAUGARRIAK AURKITU Zirkulu batean daudelarik, ume bakoitzari fitxa bat ematen zaio. Bakoitzak honako alderdi hauei lotutako berezko 2 ezaugarri jarriko ditu: zaletasunik gogokoenak, telebistako programarik gogokoenak, hobekien gogoratzen dituen bidaiak, jostailu kuttunena. Ondoren, taldeko zaletasun komunak aurkituko dituzte. E.J. <i>TUTORETZA LEHEN HEZKUNTZAN</i>: Nire zaletasunak. 2.1 jarduera</p>	1	6
<p>GELA/ TALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA EZAGUTU ETA ARAUTU. Txoko bakoitzean zer dagoen, zer nolako materialak erabiliko ditugun eta nola, azalduko zaie. Gaien banaketa, arduradunen eginkizunak eta taldekako elkarbizitza arautuko duten arau eta mugak izendatu eta adostuko dira. Adostutakoa gelan modu argi batean idatziz jarriko da. "Araua elkarbizitza zaindu eta errazteko tresnak dira", ideia honen inguruan eraikiko ditugu. EHIK. <i>TXANELA</i>, zehar lerroa.: 1. unitatea, 4. orrialdea</p>	1	7 10
<p>EKINTZA OSAGARRIEN ETA ETXEKO LANEN TARTEA IZENDATU ETA PROGRAMATU. Etxean egiteko eskolako lanarentzat antolatu beharreko tartea izendatu. Denbora librearen kudeaketa nola egiten duten ikusi. Eguneroko bi eginkizun-esparru horiek antolatu, eta adostu dutena fitxa batean jaso. EHIK. <i>TXANELA</i>, 1. unitatea</p>	Ikasturte hasiera 1	9
<p>GORPUTZAREN ZAINTZAN GARBIKETARI ETA POSTURARI GARRANTZIA EMAN Gaiari buruz hitz egin ondoren mimikaren bidez adierazi, eta ohitura onen murla egin. Ondoren eskegi egingo da. E.J. <i>TUTORETZA LEHEN HEZKUNTZAN</i>: Osasun ohitura onak. 15.1 jarduera</p>	1	

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>NORBERAK BERE BURUA ETA BESTEENA ONARTU Kideen aspektu positiboak behatu, ezagutu, estimatu eta adierazi. Era berean, besteek gudan estimatzen dutena jaso. Gelan korruan jarriaz, erdian begiak estalita dituen kideari hitzez edo ez-hitzez adierazi. Onesten diren balio eta ezaugarriak azaldu eta azpimarratu. EHIK. <i>TXANELA</i>: gure lagunek gauza on asko dituzte.1. unitatea, 5. orr.</p>	1	5
<p>NORBERAREN EZAUGARRI ETA NORTASUNAZ OHARTU Bakoitzak kartulina batean bere ezaugarri fisikoak kontutan hartuz zaletasun bat praktikatzen marraztuko du bere burua. Era berean, beste zaletasun batzuk ( gustuko arropa, irakurketak, janaria....e.a) marraztuko ditu. Besteei azalduko die. Kartulinak gelako txoko batean eskegiko ditugu. EHIK. <i>TXANELA</i>: Hola yo soy.1. unitatea, 9. orr.</p>	1	6
<p>TALDE LANEAN JARDUTEKO, KOORDINAZIOAK DUEN GARRANTZIAZ OHARTU Gela 3 taldetan banatuko da.Talde bakoitzari mugimendu eta eginkizun jakin bat emango zaio. Bakoitzak berea egiteaz gain besteena kontutan hartu beharko du. Mugimendu hauek bestea entzun eta honekin koordinatzea eskatzen dute. EHIK, <i>TXANELA</i>: Kanpaiak.</p>	1	3
<p>LAGUNTZA HARTU ETA EMAN Ikasleak hareazko poltsatxoak buru gainean daramatela mugituko dira gelan. Kideari erortzen bazaio, hau izoztu egingo da beste batek jaso eta buru gainean jarri arte. Laguntzaileak , hori egiten duen bitartean berea eror ez dadin kontuz ibili behar du. Ondoren, beraiek esan eta guk ikusitakotik abiatuz, batzuen eta besteen portaeraz hausnartuko dugu. Egoera hori egunero ematen diren egoerekin alderatuko dugu. EHIK. <i>TXANELA</i>: Hareazko poltsatxoak</p>	1	5
<p>KONFIANTZA ZERTAN OINARRITZEN DEN JABETU 'Manta magikoaren' jolasa 5 edo 6 kideko taldeak egin eta manta baten gainean bat jarri. Honek gidatzeaz gain, bidaiaren baldintzak adieraziko ditu. Besteek errespetatu beharko dituzte honen esanak. Ondoren, beraiek esan eta guk ikusitakotik abiatuz, batzuen eta besteen portaeraz hausnartuko dugu. Egoera hori egunero ematen diren egoerekin alderatu EHIK. <i>TXANELA</i>: Manta magikoa. 2. unitatea, 27. orr</p>	1	5 7

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
NESKA ETA MUTILEN LAN BANAKETAZ HAUSNARTU Fitxa bat emango zaie, eta ekintzak egileekin lotu beharko dituzte. Ondoren, eztabaidatu eta hausnartu egingo da. <i>Gauzek ez dute sexurik</i> .26.1 jarduera	1	8
NESKA ETA MUTILEN LANEN ESTEROTIPOAK APURTU 1. Etxean lan banaketa egiteko modua aztertu. 2. Gizartean onesten edo arbuiatzen diren rolei buruz hausnartu. Estereotipoak apurtzeaz elkarri galdetu. E.J. <i>TUTORETZA LEHEN HEZKUNTZAN</i> 27.1 jarduera: Amaren eta aitaren lanak EHIK. <i>TXANELA</i> :1. unitatea, 32. orr: Markos kantinera ipuina	1	8
NESKA ETA MUTILEN JOSTAILUAK AUKERATU Hasieran, etxean dituzten gustuko jostailuei buruz solasaldia egingo da. Ondoren, fitxa bat eskaintzen zaie, jostailuak eta erabiltzaileak lotzeko. Kontraesanak agerian jarri: guztiok ohituraz ditugun jostailuetan geratuz, emakumeak autoak ere gidatzen dituztela azalduz...ea. Ariketa hau egin ondoren, Olentzerori eskutitza idatziko zaio. E.J. <i>TUTORETZA LEHEN HEZKUNTZAN</i> : Jostailuak .25.1 jarduera	1	8
DESBERDINTASUNAK EZ ONARTZEAK ETA INBIDIAK EGITEN DUEN KALTEAZ JABETU Ipuina irakurriko da. Elur panpinaren jokabidea dela-eta, ideia zaparrada egingo da. Inbidiak sortzen dituen kalteez jabetuko gara. Jokabide horren ondorioak aztertuko dira. Era berean beleen portaeren inguruan. Jokabide hauek gure artean antzemango ditugu. Schreiber, Edith; Holland,Carola. <i>Cuando los cuervos eran multicolores</i> ipuina. Juventud argitaletxea	1	5
OLENTZEROREN ETORRERAZ HITZ EGIN Saio honetan opariez arituko dira. "Ba niri deus ere ez" aukera hori sartuko dugu elkarrizketan. Ondoren, oporretan egindakoaz arituko gara.	1	8
BINAKA LANEAN JARDUN Gela unibertsoa da eta planeta. Eskuak erabili gabe bikoteak planetari airean eutsi behar du eror ez dadin. Bikotea nola moldatu den behatu eta horretaz hitz egin. EHIK. <i>TXANELA</i> : Planetak jausteko zorian ? ez horixe! 4. unitatea, 10.orr	1	3 7

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>ERABAKIAK HARTU 10€ emango zaie eta gastatzeko aukera batzuk. Norberak erabakiko du zertan gastatu. Erabakitzen dugunean zerbait uzten dugula ikusaraziko zaie, eta galdetu: zerk eraman gaitu hau hautatzera? E.J. <i>TUTORETZA LEHEN HEZKUNTZAN</i>: Erabakiak hartzen ditut.34.1 jarduera</p>	1	2
<p>HITZIK GABE KOMUNIKATU Hitzetatik haratago komunikatzen dugun horretaz ohartaraztea da helburua. Harridura, nazka, beldurra, poza, haserrea.....gorputzaren, eta bereziki, aurpegiko espresioaren bitartez adierazteko eskatze zaie ikasleei. Kideak sentimendua identifikatuko du. EHIK, TXANELA: Gorputza ere komunikatzeko tresna bat da. 6. unitatea,12. orr</p>	1	
<p>KONFIDANTZAREN OINARRIAK IDENTIFIKATU 'Trenaren' jolasa. 5 edo 6 partaideko trena osatu elkarri sorbaldeetatik helduz. Denak itsu doaz, gidatzen duen atzeko makinista ezik. Kode bat dute bidea nondik nora doan ulertzeko. Ondoren gertatutakoaz solasaldia egingo da. EHIK. <i>TXANELA</i>: trena. 8. unitatea, 24. orr</p>	1	
<p>GURE JARREREZ JABETU Ipuina irakurriko da eta ondoren pertsonaiak azaltzen duten zein jarrerekin identifikatzen diren azalduko dute. Laguna izatea zer den eta zer ez den bereiztuko dugu. E.J. <i>TUTORETZA LEHEN HEZKUNTZAN</i>: Otsoa, eltxoa eta Ni jauna. 13.1 jarduera</p>	1	5
<p>ZAILTASUNARI AURRE EGIN 1. Ikasle kopurua baino aulki bat gutxiagoz osaturiko borobila egiten da. Musika bukatzen denean, aulkietan jesarri beharko dute. Aulkirik lortzen ez duena kanporatua izango da.Kanporatuak garenean zer nolako sentipenak ditugun agertu( frustrazioa, besteak oztopo egin digun sentipena....). 2. Era tradizionalen egin ondoren, denak jolasean jarraitu ahal izateko beste modu batzuk proposatzea eskatuko dugu. Beraiengandik sortuko ez balitz, guk proposatuko dugu. Kanporatua izan denari ezaugarri bat jarri (Gometxa), eta beste kide baten gainean esertzeko aukera eskaini. Honela egingo da guztiak aulki batean eseri arte. Taldea handia bada, banatu daiteke. Solasaldian, jolasean gertatuak eguneroko bizitzan bizitzen ditugun egoerekin alderatuko dugu. EHIK, TXANELA: Aulkiak. 5. unitatea,6. orr</p>	2	1

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>LAN PROZESUA DESKRIBATU ETA EBALUATU Irratsaioa hartuko dugu adibide gisa. 1. Launaka elkartzuz irratsaioa prestatuko dute: nor elkarrizketatuko duten, zer gaiaren inguruan eta zer galdetuko dioten erabaki beharko dute. 2. Irratsaioa egin ondoren, prestatzeko garaian emandako urratsak deskribatu eta ebaluatuko dituzte. Norberaren eta taldearen lana baloratuko da. Horretarako deskribapen eta ebaluaketa orria emango zaie, non lanaren kalitatea eta epeen errespetatzea jasoko diren. EHIK.  <i>TXANELA:</i> Irratsaioaren prestaketa: elkarrizketa. 6. unitatea 23. or</p>	2	4
<p>MODU ASERTIBOAN AGERTU Antzezpenen bitartez, egunerokoan ematen diren egoerak azalduko dira. Adibidea: Batek besteari zerbait inposatu nahi dio eta honek ezetz esan behar dio. Hasieran guk proposa dezakegu egoeraren bat . Ondoren, beraiengandik sortuak izatea komeni da. 1. Lehenengo egunean guk emandako adibideetatik abiatuta, taldeka bi egoera asmatuko dituzte ikasleen artean eta egoera horrentzako erantzun edo jarrera egokia asmatu. 2. Hurrengo egunean erabakitako egoeren antzezpenak prestatuko dituzte. 3. Beste taldeen aurrean antzezpena egin eta egoera bakoitzean hartutako jarrera aztertuko dute. Asertibitatez agertzea zertan datzan identifikatu. EHIK.  <i>TUTORETZA LEHEN HEZKUNTZAN:</i> 23.1 jarduera</p>	3	10
<p>ZIKLOAREN IKUSPEGI ZABALA ERAIKI 1. Saio batean, arbelean ardatz kronologikoa jarriko dugu eta bertan ikasleak 2 urte hauetan ikasitako gaiak gogoratuz , ardatz kronologikoan jarriko ditu. Gogoratzeaz gain, beraien gaitasuna irakurketa- idazketan, matematikan, ... jasoko da, zekitena eta dakitena. Gehien gustatu zaiena eta gutxiena. Beraien igurikapenak 1. mailan hastean eta errealtatean eman dena. Lan hau banaka egingo dute aurrena, eta ondoren arbelean bakoitzak bere datu bat kokatuko du ardatzean, honela taldearen ikuspegia osatuz. 2. Beste saio batean lagun arteko balorazioa egingo da. Norberak zer ikasi duen aipatuko du. Lagunartean zer izan den hoberena. Ibilaldia egin badute, adibidez, irteera horretan ikasitakoa, bizitakoa jasoko da eta irudikatuko da. Datorren ikasturteko tutorea aurkeztuko zaie (aldatzen bada).</p>	2	6

**LH 3**

### Ikas maila: 3

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
BARNE ARAUTEGIA KOMUNIKATU ETA GELAKO ARAUAK JARRI	1	
<p>EMOZIOAK IDENTIFIKATU Eguneroko gertaeratan bizitzen ditugun emozioak identifikatu eta sentitzen dugunari izena jartzea da jarduera honen helburua. Jarduera hau burutzeko alde banatan emozioen izenak dituen dadoa erabiliko dugu. Dadoa bota eta irteten den emozioa noiz sentitu izan duen esan beharko du ikasle bakoitzak. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Adimen emozionala</i></p>	1	5
<p>EMOZIOAK SEINALE FISIKOEN BIDEZ ADIERAZI Binaka jarrita eta bietako batek begiak estalita dituela, beste bikotekideak seinale fisikoaren bidez adierazten duen emozioa zein den igarri beharko du. Beraz, jarduera honen helburua emozioek sortzen dizkiguten seinale fisikoak identifikatzea da. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Adimen emozionala</i></p>	1	5
<p>NORK BERE BURUA EZAGUTU Denok desberdinak garela ohartuz, bakoitzak dituen ezaugarri fisikoak eta izaerari dagozkionak identifikatzeko jarduera izango litzateke hau. Izenik jarri gabe, bakoitzak txartel batean idatzi beharko ditu bere ezaugarriak. Txartelak jaso ondoren, irakurtzen den txartela nori dagokion asmatu behar dute ikasleek. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Adimen emozionala</i></p>	1	5

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>IKASTURTEKO LIBURUAK AUKERATU Ikasturtean zehar irakurketa sustatu nahian, irakurtzeko aukera izango dituzten liburuen zerrenda bat aurkeztuko diogu taldeari. Jarduera honen helburua ikasturtean zehar irakurri beharreko liburu kopurua eta hauek irakurtzeko epeak beraien kabuz zehaztea da. Bi saiotan banatuko dugu jarduera. 1. Talde txikitan banatzen dira ikasleak. Talde bakoitzari liburuen zerrenda bat eta bakoitzari buruzko datuak emango zaizkio; izena, egilea eta liburu bakoitzaren laburpena alegia. Talde bakoitzak esku artean daukan informazioa irakurriko du eta ondoren gehien gustatu zaizkion liburuak aukeratuko ditu. Ondoren, talde handian talde txiki bakoitzak bere aukerak aurkeztuko ditu. Azkenik, talde handian ikasturtean zehar irakurtzea gustatuko litzaieken 3 liburuak adostuko dira. 2. Behin 3 liburuak aukeratu dituztela epeak adostuko dituzte. Talde txiki bakoitzari ikasturteko egutegia emango zaio. Egutegi hori aurrean daukatela liburu bakoitza noizko irakurri beharko den adostu beharko dute, lehenik talde txikian eta ondoren talde handian.</p>	2	9 3 10
<p>GATAZKA EGOERETAN IRTENBIDEA BILATU 1. Gatazka-egoeren identifikazioa eta hauen inguruko eztabaida. 2. Gatazka egoerek sortzen dizkiguten sentimenduei buruzko hausnarketa. 3. Gatazkak konpontzeko dauden irtenbideei eta hauek konpontzeak dituen onurei buruzko eztabaida. Lorratz Elkarte. <i>Urkitzen proiektua</i></p>	3	10
<p>TUTORETZA SAIOAK BALORATU Tutoretza saioei buruz hitz egingo da. Bertan honako alderdi hauek baloratuko dira: -Zer da gehien gustatu zaiena? -Zer ikasi dute? -Zer da gutxien gustatu zaiena? -Tutorearekin eta ikaskideekin harremanak</p>	1	7



JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
ARDURATSUA IZAN 1. Testuinguru batzuetan eta besteetan pertsonok edukitzen ditugun ardura desberdinak izendatu. 2. Aurreko saioan izendaturiko ardurak bakoitzak zenbateraino betetzen dituen kontzientzia hartu. 3. Arduratsua izateak norberarentzat eta ingurukoentzat dituen abantailen inguruko eztabaida. Lorratz Elkartea. <i>Urkitzen proiektua</i>	3	11
EMOZIOEN ALDERDI BAIKORRAK ETA EZKORRAK AZTERTU Orain artean landutako emozioak txarteltxoetan idatzita aurkeztuko dizkiegu eta arbelean bi borobil marraztuko ditugu. Borobil baten barruan "kalte egin diezagukete eta bestean "on egin diezagukete idatziko dugu. Ikasleek borobil horietan kokatu beharko dituzte emozioen txarteltxoak. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Adimen emozionala</i>	1	
EMOZIOAK BIDERATU Emozioen aurrean nola erantzuten dugun aztertuko dugu. Erantzun guztiak arbelean idatziko ditugu, irtenbide egokiak eta desegokiak eztabaidatuz. Ondoren, emozio desberdinen aurrean nola erantzun beharko genukeena adieraziz kartel batzuk egingo ditugu. 1. "Poza eta haserrea " emozioak. 2. "Tristura eta inbidia " emozioak. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Adimen emozionala</i>	2	5
GURE BURUA LASAITU Arnasketaren bidez erlaxazioa espermentatu eta landu.	1	
MARTXOAREN 8AZ GOGOETA EGIN Emakumearen papera gizartean historian zehar zein izan den aztertu.	1	8
BARNE ARAUTEGIAREN eta GELAKO ARAUEN JARRAIPENA EGIN Ikastolako eta gelako elkarbizitza atseginak izateko helburuarekin sortuak izan diren barne araudiaren eta gelako arauen errebasoa egingo dugu, beteak izan diren arauetaz ohartaraziz eta hobetzeko diren jarrerak betetzeko konpromisoa hartuz.	1	7 10

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ / ZENBAT SAIO</b>	<b>Konp.</b>
<p>TUTORETZA SAIOAK BALORATU Tutoretza saioei buruz hitz egingo da. Bertan honako alderdi hauek baloratuko dira: -Zer da gehien gustatu zaiena? -Zer ikasi dute? -Zer da gutxien gustatu zaiena? -Tutorearekin eta ikaskideekin harremanak</p>	1	7

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>TALDEKO FUNTZIONAMENDUAREN DIAGNOSIA Diagnostika 2 saiotan egingo dugu: 1. Azalpena eman ondoren eta talde txikitan banatu ondoren talde bakoitzak gelako "AMIA" egingo du. Gelako elkarbizitza aztertzeko AMIA izango da. Hau da, talde bakoitzak arlo honi dagozkion taldearen alderdi ahulak, indar-guneak, aukerak eta mehatxuak aztertuko ditu. 2. Talde bakoitzaren "AMIA" k aztertu ostean guztion artean gure taldearen funtzionamenduaren "AMIA" zehaztuko dugu eta "AMIA" hori kartulina handi batean idatzi eta gelako horma batean jarriko dugu.</p>	2	3 7
<p>BARRETERAPIA SAIOA Taldeko arazoak eta tentsioak askatzeko estrategia berri hau erakutsiko diegu.</p>	1	
<p>GERTAEREN ALDE BAIKORRA AURKITU Jarduera honen helburua zailtasunak gainditzeko ahalmenak lantzea eta pentsamendu ezkorrak baikor bihurtzeko ohitura hartzea da. Kaxa batean berri txarrak adieraziko dituzten txartel batzuk sartuko ditugu. Adibidez: <i>Aste buruan familiarekin kanpora joateko plana geneukan baina autoa izorratu zaigu.</i> Irakasleak txartelak banan-banan atera eta ozenki irakurriko ditu. Ikasleek egoera hori baikor bihurtuko dute, <i>Horri esker...</i> formarekin hasiko den esaldi baten bidez. Ikasleek banaka edo talde txikitan erantzunak bilatu beharko dituzte. Jarduera honekin amaitzeko, jardueraren inguruan gehiago pentsatzea eskatuko diegu, beraiei frustrazioa sortu dizkieten egoera errealak azaltzeko eskatuz.</p>	1	1
<p>ZALANTZA EGOERAK AZTERTU Jarduera honen helburua egunerokotasunean zalantzak edukitzea oso normala dela ohartaraztea da. Bakoitzak berak eduki izan dituen edo behin baino gehiagotan edukitzen dituen zalantzak idatziko ditu paper zati batean. Bakoitzak zalantza horien aurrean hartu izan dituen jarrerak azalduko ditu eta talde handian bakoitzaren jarreraren inguruan hitz egin eta jarrera horiek zuzentzeko proposamenak baleude hauen inguruan hitz egingo litzateke.</p>	1	2

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>BAKOITZAREN TREBETASUNAK ETA BETEBEHARRAK IDENTIFIKATU Bakoitzaren trebetasunetatik abiatuta ikasle bakoitzak hobetu beharko lituzkeen gauzetaz ohartzea izango litzateke jarduera honen helburua. Guztia marrazturiko zuhaitz batean islatuko lukete, sustraietan bakoitzaren trebetasunak jarriz eta adarretan hobetu beharko luketena idatziz. Gipuzkoako Foru Aldundia.</p> <p><i>Adimen emozionala</i></p>	1	6
<p>OHITURA OSASUNTSUAK BALIOETSI Bi jarduera egingo ditugu, bakoitza saio banatan. Lehena saio bakarrean eta bigarrena bi saiotan. 1. <i>Zaindu dezagun gure burua:</i> irakasleak eguneroko garbiketarekin erlazionatutako esaldi baten zatia txarteltxo batzuetan idatzita izango du. Ikasleen lana esaldietako zatiak ordenatuz esaldiak osatzea da. 2. <i>Iragarkia:</i> jarduera honen helburua elikadura osasuntsuz ohartaraztea da. Behin guzti honi buruzko azalpena eman ondoren, talde bakoitzak honi buruzko iragarki bat prestatu beharko du. 3. <i>Iragarkiaren antzezpena.</i> Bukatzeko gaiari buruzko ondorio orokorra adostuko dugu.</p>	3	
<p>TUTORETZA SAIOAK BALORATU Tutoretza saioei buruz hitz egingo da. Bertan honako alderdi hauek baloratuko dira: - Zer da gehien gustatu zaiena? -Zer ikasi dute? -Zer da gutxien gustatu zaiena? -Tutorearekin eta ikaskideekin harremanak</p>	1	7

LH 4

## Ikas maila: 4

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>IKASTURTE BERRIA ANTOLATU Arduren banaketa: txoko bakoitzak bi edo hiru arduradun izango ditu (liburutegia, atsedenetan baloiak, birziklatze txokoa, ...). Gelako etorkin berrien laguntzaileak izendatuko dira. Gelan sortzen diren beste lanetarako ere arduradunak egongo dira: data idatzi, argiak itzali..... Gelako ordezkaria eta Agenda 21eko ordezkaria hautatuko dira.</p>	1	7
<p>IKASTOLEN JAIK BULTZATU Kilometroaren festaren inguruan ikastola antolatzaileak prestatzen duten unitate didaktikoa garatu. Ikastola antolatzaileak bidaltzen duen unitate didaktikoa</p>	1	9
<p>EMOZIOAK IDENTIFIKATU Iazko ikasturtean landutako emozioak ahoz errepasatu (poza, tristura, inbidia, haserrea, nazka, maitasuna, harridura...).Emozio bakoitza bizitzako zein unetan sentitu duen adieraziz fitxa bat bete. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	2 8
<p>SENTIMENDUAK ANTZEMAN Hainbat egoeratan sortzen zaizkigun sentimenduak antzeman, "Nola sentitzen naiz?" galdetu eta fitxa baten adierazi. Saioa, elkarrizketa batekin amaituko da. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	2 8
<p>EMOZIOEN INTENTSITATEA AZTERTU Koloreen bidez, 'Emozioen intentsitatearen eskala' erabiliz, orri batean emozio bakoitzarekin lotzen duten kolorea margotuko dute. Ahoz beren aukera eta zergatia adieraziko dute. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	2 8
<p>NORBERAREN GAITASUNAK EZAGUTU Ahoz bakoitzak duen/dituen gaitasuna/k komentatuko ditu ondoren, eta denok gaitasunak ditugula garbi utzi ondoren, fitxa bat beteko dugu. Gaitasun bakoitzaren azpian dagokion marrazkia egingo dugu. Amaieran taldekideei marrazkia eta honek adierazten duena aurkeztuko zaie. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	2	6

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>KRITIKAK ONARTU 1. LAGUNEKIKO DITUGUN IRITZIAK AURKEZTU Borobilean jarriko gara. Ezker-eskuin ditugun ikaskideei, beraiei buruz dugun iritzia esango diegu: zer gustatzen zaigun eta zer ez. Taldekide guztiek iritzia eman dutenean, ikasle guztiak nahastu eta berriz ere borobila osatuko dugu gauza bera eginez. 2. JOKAERAK AZTERTU Aurreko saioa aztertuko dugu. Gure lagunek esan digutenari buruz hitz egingo dugu. Guk egiten dugun horretatik besteei gustatzen ez zaienari irtenbidea aurkitzen saiatuko gara. Konpromisoak hartuko ditugu horiek konpontzeko. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	2	1 2 5
<p>EMOZIOAK EZAGUTU 1. EMOZIOAK IDENTIFIKATU Guztiok sentitzen ditugun identifikatuko ditugu. Horretarako ikasleak dadoa botako du eta emozio baten izena aterako zaio. Emozio hori zein momentutan sentitzen edo sentitu izan duen esan beharko du. 2. EMOZIOAK HAUTEMAN Ikasleak binaka jarriko dira, batek begiak estaliko ditu eta besteak bere gorputza eta aurpegia erabiliko ditu emozio jakin bat adierazteko. Begiak itxita dituen ikasleak ukimena erabili beharko du zein emozio den asmatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	2	2,8
<p>NORBERARI BEGIRATU Gure ezaugarriak identifikatuko ditugu, fisikoak eta psikikoak, denok desberdinak garela eta desberdinak izateak aberasten gaituela ikusteko. Horretarako lau petaloko lore baten erdian ikasleak bere argazkia itsatsiko du, petalo batean ezaugarri fisikoak idatziko ditu, bestean izaerakoak, hirugarrenean gustuko dituen egoerak eta azkenekoan gustuko ez dituenak, ondoren talde txikitan bakoitzak petaloetan idatzi duena azalduko die besteei Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	6

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>LASAITU Ikasleak zutik jarriko dira, irakasleak ariketaren zergatia eta zertarako balio duen argituko du, ondoren pixkanaka beren gorputzeko atal guztiak tentsioan jartzeko eskatuko zaie, hori lortzen dutenean, irakasleak tentsio guztia pixkanaka askatzen joateko eskatuko die ikasleei, gorputzeko atalak banaka lasaitu daitezten. Gipuzkoako Foru Aldundia, Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi ERLAXATU Tentsio fisikoa jaisten erakutsi: yoga, erlaxapen progresiboa, arnasketa ariketak edo irudi mentalak erabiliz. Musika:TUPAC Green Paradise</p>	2	
<p>BAIKORTASUNA BULTZATU Egunean zehar egiten dituzten ekintza gustukoena zerrendatzen dituzte ikasleek. Orri baten alde batean beraien irudia marraztuko dute, beti ere aurpegi baikorra irudikatuz. Marrazkia zatitan egin, puzzle modura, eta zati bakoitzaren beste aldean zerrenda horretako esaldi bat idatziko dute. Ondoren puzzlea osatzen da. EGUN IDEALA DESKRIBATU Ikasleek beraien egun ideala nolakoa izango litzatekeen idatziko dute. Ondoren besteen aurrean irakurriko dituzte idazlanak eta atera diren antzekotasunak guztion artean komentatuko dira. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	2	3
<p>GEURE BURUAREKIN MALGUTASUNEZ JOKATU Talde osoa zutik jarriko da borobilean eta abesti bat sortzen du, Rap erritmoan. Abestian ikasle bakoitzak gaizki atera zaion zerbait esango du eta besteek koro moduan, "Eta zer! Eta zer!" erantzungo dute. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	5
<p>EZETZA EMAN 'Ez' esaten ere ikastea da helburua. Hiru edo lau taldetan irakasleak emandako proposamen korapilatsu bati konponbidea eman beharko diote. Erantzuna adostu ondoren antzestu egingo dute. Besteek, ikusi dutenari buruzko iritzia emango dute. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	2



JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>ENTZUTEN JAKIN Ikasleek lurrian eserita borobil bat osatuko dute. Ondoren irakasleak bere alboan duenari mezua esaten dio eta mezua pasatzen diote elkarri azken ikaslearengana iritsi arte. Azken ikasle honek jaso duen mezua denon aurrean adieraziko du. ELKARRI ENTZUTEN IKASI Ikasle eta irakaslearen artean komunikazio on bat lortzeko zein neurri har daiteken adosten dute. Ondoren bikoteak egiten dira eta batak besteari gustuko duen film, istorio edo liburu bat kontatzen dio. Ariketa amaitzean, talde handian, nola sentitu diren komentatuko dute ikasleek. BESTEEN JARRERAK EDO JOKABIDEAK ULERTU Ikasleak borobilean eseriko dira eta irakasleak errealitatearekin zer ikusia duen egoera bat aurkeztuko die. Egoera azaldu ondoren irakasleak galdera hauek egingo dizkie: Nola sentitu da zure ustez?, Zergatik sentitu ote da horrela?, Zer egin dezaket? Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	3	3 8
<p>IKASLEEN ARTEKO ERLAZIOAK SORTU Gelako bi ikasle aukeratu dira eta aste horretan bi horiek izango dira elkartze planaren protagonistak: bata besteari lagunduko dio, egunero zer moduz dauden galdetuko diote elkarri, gelan erre egoten lagunduko diote elkarri, etxerako lanak zeintzuk diren gogoratuko diote elkarri, zerbait ulertzen ez dutenean batak besteari azalduko dio, atsedeneko garaian elkarrekin jolastuko dute ... Astea amaitzean esperientziaren balantzea egingo dute gelakideen aurrean. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	3
<p>HELBURUAK AURREIKUSI 1. Ikasle guztiak borobilean esertzen dira eta egoera edo amets bat aurkezten zaie, baita hau lortzeko bideak ere. Ondoren talde txikitik beraien helburu edo ametsen bat aukeratu eta horri konponbidea ematen saiatzen dira. 2. Ikasle bakoitzak aurreko saioan egindakoa kontutan izanda, orri zuri batean bere amets edo helburu erreal bat marrazki baten bidez islatuko du. Marrazkiaz gain esaldi bat ere erantsi dezake. Marrazkiaren atzean amets hori lortzeko zein pauso jarraitu beharko lituzke adieraziko du. Lana amaitzean bakoitzak bere ametsa zein den azalduko du talde handian eta irakasleak ametsen bilduma osatuko du. Ikasleek etxera eramango dute bilduma, guraso edo pertsona heldu batekin ikusi eta komentatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	2	11 12

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ / ZENBAT SAIO</b>	<b>Konp.</b>
<p>GELAKO ARAUTEGIA IDATZI Ikasle bakoitzari orri zuri bat emango diogu eta, bertan, gelan gertatzen diren alderdi desatseginak idatziko ditu. Segidan, idatzitako mezuak talde handian irakurtzen dituzte eta horren inguruan hitz egingo dute. Eztabaidan ateratako ondorioak kontutan izanda, gelako arautegia idatziko dute. Arautegia horma-irudi batean jarriko da eta arautegia betetzen dela bermatzeko erregistro bat eramango da. Arauak betetzen ez dituenak zein ondorio izango dituen ere, alde zuzenetik erabakiko da. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	5 7 10
<p>NORBERAREN IRITZIA ERA EGOKIAN AZALDU Irakasleak 'asertibitatea' hitzaren esanahia azalduko du. Ikasleek, eguneroko bizitzan asertibo izateko zer egin dezaketen proposatuko dute. Lortutako erantzunekin asertibitatearen horma-irudia egingo dute, gelan ipintzeko. Astebetez, "Asertibitatearen Astea" egingo dute, horma-irudian idatzitako arauak betetzen diren edo ez begiratu. Arauak ongi betetzen badira puzzle baten pieza jarriko dute. Puzzlea osatzean, asertibitatearekin zerikusia duen irudi bat ikusiko da. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	6
<p>ELKARREKIN IKASTEN JARDUN Ikasleak binaka jartzen dira eta bikote bakoitzak emanaldi bat prestatzen du, ikasturte amaieran egingo duten jaialdirako. Ikasle batek besteari berak duen trebeziaren bat erakutsiko dio eta bien artean egingo dute egerpena. Astebete emango diegu emanaldia prestatzeko, eta kurtso amaieran eskainiko dute denon aurrean. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i></p>	1	3 9

**LH 5**

## Ikas maila: 5

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>GELAKO ARAUDIA ADOSTU. Talde handian lantzen da. Hasieran denen artean ikusten dituzte zein diren arau premiazkoak gelako elkarbizitza egokia izateko. Irakasleak eta ikasleek proposatzen dituzte. Hortik ateratzen diren arauetatik garrantzitsuenak aukeratzen dira. Denen artean onartzen dituzte eta ondoren abian jarri. Arautegia horma-irudi batean jarriko da.</p>	1	3
<p>IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK ARGITU. Talde handian. Irakasleek ikasleei araudiaren berri ematen die eta ikasleen iritziak jasotzen dira araudiaren inguruan. Argi gelditu behar dute ikasleen eskubideak eta betebeharrak zeintzuk diren. Jokabideei buruz hitz egiten da. Ad: hitz egiteko eskua altxatu eta itxaron irakasleak txanda eman arte... Ikastolako araudia ( Saiatzen gara beraien mailara egokitzen ).</p>	2	
<p>TALDEAREN KOHESIOA INDARTZEKO ZENBAIT JOLAS EGIN Talde handian eta txikian egiteko. Soinketa gela egokia ikusten da, espaziotatik . Jolasen helburua elkarren arteko konfiantza sortzea eta indartzea da. Elkarren premia nabaritzea helburuak errazago lortzeko.</p>	1	
<p>AUTO-ESTIMUA HOBETZEKO EKINTZAK AURRERA ERAMAN. Psikomotrizitate gelan egitea egokia ikusten da. Borobilean eserita. Sentimenduen gurpila: elkarri ezaugarri onak eta hobetu beharrekoak aipatu (idatziz ere egin daiteke). Ezaugarrien bereizketa egiten da gelan. Horren inguruan hitz egiten da. Ikasle bat aukeratzen da eta beste guztiek ikasle horren ezaugarri on bat aipatzen dute eta baita hobetu beharreko ezaugarri bat ere. Denak jasotzen dituzte gauza onak eta denak hobetzeko duten zerbait. Bigarren saioan jarraipena egiten da.</p>	2	
<p>IKASLE BAKOITZAK BERE BURUA HOBETO EZAGUTU. Norberak bere burua hobeto ezagutzeko zenbait fitxa: - nolakoa naiz (galdesorta) -zaletasunak (galdesorta) - denboraren antolaketa (agendaren erabilera gogoratzeko aprobeztatuz). Fitxak bakarka egiten dira</p>	3	

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
SOZIOGRAMA egin Soziograma egin. Ondoren gelako taldeak egiterakoan kontutan hartuko dugu ikasle bakoitzaren egoera talde barruan.	1	
INFORMAZIOA EMAN: IKASTOLAKO BERRIAK	1	
PERTSONA GISA DITUZTEN ESKUBIDEETAZ ETA BETABEHARREZ HITZ EGIN. Irakasleek eskubide eta betebeharren berri ematen die. Gelan denen artean irakurtzen dituzte eta iritziak ematen dira, derrigortu gabe, bakoitzak pentsatzen duena adieraziz. Ad: Nire bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea daukat, eta nire betebeharra da zure bizitza pribatua errespetatzea.	1	8 10
GATAZKA EGOERETAN IRTENBIDEA BILATU. Ikasleak binaka jartzen dira eta bi ikasleen arteko egoera gatazkatsua aurkezten zaie. Bakoitzak bere paperean sartu behar du. Bi galdera hauei erantzun behar die: Nola sentitzen naiz? Nola sentitzen da bestea? EHIK. <i>Txanela 5. maila</i> 1.U.D. 45 orr.	1	10
TALDEAN HITZ EGIN Gai baten inguruan, talde handian, eztabaidan jardun. Taldean eztabaidan jarduteko arauak begiratu, eta erabili diren ikusi. EHIK. <i>Txanela 5. maila</i> 1.U.D. 46 orr.	2	7
PERTSONEN JARDUEREN ERAGINAZ KONTURATU 1. Bazterketa baten istorioa irakurri, taldean hausnarketa egin eta ondorioak atera. 2. Egoera jakinen aurrean norberak hartzen dituen jarrerak behatu. Zer egiten dugu guk? (galdesorta anonimoa )	2	5

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>EMOZIOAK IDENTIFIKATU Bizitzan zehar esperientziak, lorpenak eta porrotak izaten ditugu. Egoera hauetako bakoitza desberdin bizitzen dugu, emozio desberdinak sentituz. Ekintza honen bidez, zenbait emozio ezagutu eta identifikatuko ditugu. 1. Lurrean eserita, borobil bat osatuko dugu. Ikasleei poza, tristura, beldurra eta amorrua sentiarazi dien egoeretan pentsatzeko esan diegu. Horretarako, hiru bat minutu utziko dizkiegu. Irakasleak lau boluntario eskatuko ditu. Hauetako bakoitzari begiak zapi batekin estaliko dizkio eta emozioen kutxatik txartel bat atera dezaten esango die. Jarraian, minutu bat edo bi utziko zaie txartela irakurri eta bertan azaltzen den emozioa taldeari nola azalduko zaion pentsatzeko. 2. Emozioei eta sentimenduei izena jarritz, haurrei emozio horiez baliatzen lagunduko diegu. Argazkiak emanda, alde batetik, argazkietan zein emozio islatzen den aurkituko dugu eta, bestetik, argazkiak gutako bakoitzari zein emozio sortarazten digun ikusi. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Emozioak: ezagutu, ikasi, landu, bizi.</i> EHIK. <i>Txanela 5.maila.</i> 4.u.d. 35 orrialdea.</p>	2	
<p>MARTXOAREN 8A ANTOLATU 1- Egun horretarako gelan emakumeen inguruko azterketa historikoa egingo da. (Sufragistak zeintzuk ziren, zer aldarrikatzen zuten eta nola...) Andereñoak kontatuta edo beraiek gidoi bat jarraituta informazioa bilatu taldeka. 2- Informazio hori antolatu, horma-irudiak osatu eta pasabideetan jarri.</p>	2	3
<p>NORK BERE BURUARI, GERTAEREI ETA BESTEEI BURUZ ERANTZUN POSITIBOAK EMAN Bizitzako hainbat egoera aurkeztu, adierazi zer sentitzen duten bakoitzaren aurrean eta egoera bakoitzari bere alde positiboa aurkitzen saiatu. Adibideak, Negatiboa: Baboa naiz, dagoeneko hutsegite bat egin dut. Positiboa: Hutsegiteetatik ikasi egiten dut. E.J. <i>Bizitzarako gaitasunak eta balioak.</i> 8.a</p>	1	1

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ / ZENBAT SAIO</b>	<b>Konp.</b>
ERLAXATZEN IKASI. Erlaxazio saio bat proposatzen da. Hezkuntza.net>Hezkuntza berriztatzea>Tutoretza materialak>Tutoretza LHn.	1	
NORBERA HOBETO ZAINDU Garbiketa ohiturez, kirolez eta ohitura osasuntsuez hitz egiteko solasaldia prestatzen da. Irakasleak gidatzen du solasaldia.	1	5
DENONTZAT JOLASAK ANTOLATU Jolas garaian neskek eta mutilak zer nolako jolasak aurrera eramaten dituzten ikusi, ikertu, ondorioak atera eta proposamen berriak egin.	2	8
AURREKO BELAUNALDIETAKO JOKOEI BALIOA EMAN Ikasleek elkarrizketa bat egingo diete aitona-amonei eta gurasoei, haiek 9-11 urterekin egiten zituzten jokoei buruz, hain zuzen ere. 1- Antzinako jokoei zerrenda bat egingo dute, eta egungoekin konparatuko dituzte. Gelan bakoitza saiatuko da ekarritako jolasen berri ematen eta azaltzen nola jolasten den. 2- Taldeetan lan bat proposatuko du irakasleak jolas hauek antolatzeko eta programatzeko, beste egun batean edo batzuetan jolas-garaian egiteko moduan. 3- Taldean nola lana egin den baloratuko da. Bakoitzaren papera zein izan den, nola bete duten e.a. ikusiko da.	3	4 3 8
TUTORETZA BALIOETSI Tutoretza-saioei buruz hitz egingo da, honako alderdi hauek kontuan hartuta: • Tutoretza-saioetan, zer da gehien gustatu zaiena? • Zer ikasi dute? • Zer da gutxien gustatu zaiena? • Zein gaitan sentitu dira gustura? • Zein gai edo jarduera gehituuko lukete gustura? Hezkuntza.net>Hezkuntza berriztatzea>Tutoretza materialak>Tutoretza LHn. 5.m 39.saioa	1	11

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
----------	-----------------------	-------

LAN BAT EGITEKO URRATSAK JARRAITU.

Prozedurak eta prozesuak deskribatzen ikasteko ariketa da.

1. Elikadura gaia aztertu ondoren talde bakoitzari pintxo bat prestatzea eskatzen zaio, jarraitu beharreko pausoak argi idatziz. (gidoi bat emanaz).

3  
4

Gelan pintxo dastatzea. Bertan gelan pintxoak prestatu, dastatu eta puntuazioa eman.

2

2. Gero talde bakoitzak beste kideei azaldu beharko die prozesu osoa. Taldean nola lana egin den baloratuko da. Bakoitzaren papera zein izan den, nola bete duten e.a. ikusiko da.



LH 6

## Ikas maila: 6

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>IKASLEEN HARRERA ETA INTEGRAZIOA ERRAZTU / GUZTIEN ARTEKO EZAGUTZA BULTZATU. "Nire laguna eta ni": Ikasleak bikoteka elkartu ondoren elkarrekin betetzeko bina fitxa banatuko zaie (bata pertsonala eta bestea lagunarena) Talde handian bakoitzak bere lagunaren aurkezpena egingo du.</p>	1	3
<p>NORBERAK BERE BURUA EZAGUTZEAZ GAIN TUTOREAK ERE BEREN IKASLEEN EZAGUTZA ERRAZTU. Ikasleek egindako autodefinizioaren bidez Tutoreak haiek ezagutzea du helburu. Norberak bere fitxa beteko du bakarka eta gero talde handian azalpena eman beharko du.</p>	1	
<p>ARDURAK HARTU ETA HORIETARAKO TXANDAK IPINI. LANEN ARDURADUNAK AUKERATU Guztion artean, ikasleen erantzukizunak zein izango diren adostu dezakegu. Ondoren,erantzukizunen ebaluazio orria eta txandak beteko dira eta gelako horman itsatsi.</p>	1	7 10
<p>IKASTOLAKO PARTAIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK EZAGUTU (I) Bakarka: Ikasle bakoitzak bere ikaskideen eskubideak eta betebeharrak idatziko ditu fitxa batean. Talde txikian: Ikastolako arautegian agertzen dena irakurriko dute, bakarka idatzi dutenarekin konparatu eta gelako eskubide eta betebeharren zerrenda egingo dute.</p>	1	3
<p>IKASTOLAKO PARTAIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK EZAGUTU ETA ERRESPETATU (II) Talde handian: Aurreko saioan talde txikian egin dituzten zerrendak bateratu egingo dituzte, guztientzat zerrenda bat ateratzeko. Zerrenda gelako horman itsatsiko dute.</p>	1	3
<p>ELKARRIZKETA BAT AURRERA ERAMATEKO PAUSUAK EZAGUTU. Guztion artean adostu beharko ditugu elkarrizketa bat aurrera eramateko jarraitu beharko ditugun pausuak. Azkenean bi horma-irudi egingo ditugu: Batean elkarrizketarako praktika onak idatziko ditugu eta bestean praktika txarrak. Horma-irudi hauek non kokatu erabaki eta itsatsi egingo ditugu.</p>	1	10

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>TALDEAN LANA EGIN Talde txikietan egiten da (gehienez bost kideko taldetan) eta talde bakoitzeko behatzaile bat dago. Taldeko kide guztien artean burutu behar den jolas kooperatiboa da hau. Talde guztiek haien lana bukatu ostean, eztabaida bat egingo dugu ikastaldean, batez ere nola sentitu diren eta taldekideen jarrerak emankorrak ala bereganatzaileak izan diren jakiteko.</p> <p>Hezkuntza.net&gt;Hezkuntza berriztatzea&gt;Tutoretza materialak&gt;Tutoretza LHn. 6.m 15.saioa</p>	1	7
<p>TALDEAN LAN EGIN Aurreko saioan egindako ekintza bera errepikatuko dugu beste jolas baten bidez. Behin jakinda zer egin behar den, aurreko saioan ateratako ondorioak ikusita, ea zer aldatu dezakegun ikusiko dugu guztion artean. Gero, alderik egon den eta zertan aztertuko dute ikasleek.</p>	1	7
<p>TALDEAREN ALDERDI ONAK ETA HOBETU BEHARREKOAK DEFINITU. Gela-taldearen alderdi onak eta hobetu beharreko alderdiak zerrendatuko dituzte talde txikietan banatuta. Gero, talde handian, guztion artean adostuko dira zeintzuk diren hobekuntzak, plan bat egingo da bizpahiru helburu eta aurrera eramateko pausuak ere zehaztuz.</p>	1	7
<p>KOMUNIKAZIOAREN SUBJEKTIBOTASUNA ETA EMAN DAITEZKEN DISTORTSIOAK IDENTIFIKATU. Hondatutako telefonoaren jolas klasikotik abiatuta, hitz bat esan ordez, istorio txiki bat kontatu behar da. Kanpoan aukeratutako ikasle batzuk egongo dira. Lehenengo gela osoari kontatuko zaio istorioa eta gero, gelako ikasle batek kanpoan itxaroten egon den bati kontatuko dio, honek beste bati, ...Taldeak ikusiko du honela istorioak izan dituen aldaketak eta ahozko komunikazioaren distortsioak ulertzen joan.</p>	1	3 7
<p>NORK BERE HISTORIA EZAGUTU ETA ORAIN, NERABEZAROAN SARTZEN ARI DIRELA, BERE HAURTZAROA HARRO SENTITU. "NIRE AUTOBIOGRAFIA:(0-2 urte)" Ikasle bakoitzak aipatutako garaiari buruzko alderdirik garrantzitsuenak adierazten ditu (bai idatziz, bai argazkiak itsatsiz) horretarako prestatutako fitxa batean, gero gelan, talde handian, horretaz hitz egiteko. Azkenean gelako kortxoan eskegiko ditugu ikusgai.</p>	1	5
<p>NORK BERE HISTORIA EZAGUTU ETA ORAIN, NERABEZAROAN SARTZEN ARI DIRELA, BERE HAURTZAROA HARRO SENTITU. "NIRE AUTOBIOGRAFIA:(2- 10 urte)" Ikasle bakoitzak aipatutako garaiari buruzko alderdirik garrantzitsuenak adierazten ditu (bai idatziz, bai argazkiak itsatsiz) horretarako prestatutako fitxa batean, gero gelan, talde handian, horretaz hitz egiteko. Azkenean gelako kortxoan eskegiko ditugu ikusgai.</p>	1	5

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>NORK BERE HISTORIA EZAGUTU ETA ORAIN, NERABEZAROAN SARTZEN ARI DIRELA, BERE HAURTZAROAZ HARRO SENTITU. "NIRE AUTOBIOGRAFIA:(10-12 urte)"</p> <p>Ikasle bakoitzak aipaturako garaiari buruzko alderdirik garrantzitsuenak adierazten ditu (bai idatziz, bai argazkiak itsatsiz) horretarako prestatutako fitxa batean, gero gelan, talde handian, horretaz hitz egiteko. Azkenean gelako kortxoan eskegiko ditugu ikusgai.</p>	1	5
<p>TALDEAREN HOBETZEKO PLANA EBALUATU ETA, BEHARREZKOA BADA, BIRBIDERATU Lehen hiruhilabetekoan proposatutako hobetze plana aztertu: orain arte egin duguna, zer falta zaigun, norberak bere partetik jarri behar duena bide onetik joateko, ... eta bideratu helburuak aldatuz edota daudenak berriz definituz.</p>	1	4 7
<p>EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ARRAZOAIA AZTERTU ETA EMAKUME OSPETSU BATZUEN BIZITZA EZAGUTU. "MARTXOAREN 8a": 1) Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Egunaren arrazoia ezagutzeko, historia aztertu eta horren inguruko iruzkinak egingo dituzte. Gaiaren inguruko marrazki bana egin eta pasabidean jarriko dituzte. 2) Emakume ospetsu batzuk ezagutzen: Hiztegi entziklopediko, Internet, ... baliabide desberdinak erabiliz emakume ospetsuen biografiako datu batzuk atera eta idatzi ... 3) Hurrengo saioan gela aurrean aurkezpena egingo dute binaka.</p>	3	
<p>EGOERA JAKIN BATZUEN AURREAN EZETZ ESATEN AUSARTU. <input type="checkbox"/> Bakoitzak ez esatea nahi izan arren baietz esan zuen egoera bat aukeratzeko eta paper batean idazteko eskatuko diogu. Gero binaka elkartuta bakoitzaren egoerari irtenbideak ateratzeko eskatuko diegu. <input type="checkbox"/> Hurrengo saio bietan, eta bikoteak mantenduz, egoera horiek antzetzuko dituzte.</p>	3	2 3
<p>DBHRI BURUZKO INFORMAZIOA JASO ERABAKIAK HARTZEKO. Talde txikietan bilduta, DBHn eta ondorengoan egiten den ibilbideari, eta dauden aukerei buruzko informazioa ateratzeko esango diegu ikasleei, ikasle nagusiagoei edo irakasleei galdetuta, interneten begiratuta, haiek dakitena eztabaidatuz. Informazioa ordenatu eta sailkatu egingo dute.</p>	1	12
<p>DBHRI BURUZKO INFORMAZIOA JASO ERABAKIAK HARTZEKO. Haiek ateratako informazioa irakaslearenarekin alderatuz, ibilbide desberdinen eskema irudikatuko dugu arbelean</p>	1	12

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
DBHRI BURUZKO INFORMAZIOA JASO ONDOREN, ERABAKIAK HARTZEKO BIDEAN IPINI. DBHri buruzko informazioa jaso ondoren haien etorkizunean pentsatzen jarriko ditugu. Bere aurreikuspena jasoko dute orri batean.	1	12
PERTSONA BAKOITZAREN BIZI ESPAZIOA ZEIN DEN IDENTIFIKATU. Bikoteka banatuko da gela eta irakasleak artile mataza zati bana emango dio bikote bakoitzari. Bakoitzak hariaren mutur bat hartu beharko du eta bestearengandik ahalik eta gehien urrundu. Haria biltzen hasi beharko dira bietatik batek nahiko esan arte. Ondoren bikote bakoitzak bildu gabe gelditu den haria neurtuko du. Guztion artean eztabaidatuko dugu sentitu duguna, zergatik dauden hainbeste desberdintasun gure artean, zertan aldatzen den egoera zerbait konfidantza dugun pertsonarekin egiten dugunean, ...	1	8
TALDEAREN HOBETZEKO PLANA EBALUATU. Lehen hiruhilabetekoan proposatu eta bigarrean berriz planteatu den hobetzeko planari amaiera eman: Helburuak lortu diren ala ez ikusi, zailtasunak zerrendatu, hauen zergatiak ikusi, ...	1	4
GURE AUZOAN BIRZIKLATZEKO ERRAZTASUNAK DITUGUN ALA EZ BALORATU. 1. Auzoan irteera antolatuko dugu zabor-ontzi nahikorik dagoen aztertzeko, zein motatakoak diren, gutxi gora beherako zabor kopurua zenbatuko dugu, zaborra ondo sailkatuta dagoen begiratuko da, ... 2. Hurrengo saioan talde bakoitzak jasotako datuak bilduko ditugu arbelean eta ondorioak aterako ditugu guztion artean.	2	8
TUTORETZA SAIOEN BALORAZIOA EGIN. Tutoretza saioei buruz hitz egingo da, honako alderdi hauek kontuan hartuta: Tutoretza orduan zer da gehien gustatu zaiena? Zer ikasi dute? Zer da gutxien gustatu zaiena? Zelakoa izan da zuen tutorearekin izan duzuen harremana? Tutorearen papera baloratu ... Hezkuntza.net>Hezkuntza berriztatzea>Tutoretza materialak>Tutoretza LHn. 6.m 40.saioa	HIRUHILABETEAN BEHIN (Bakoitzaren amaieran) 3	7

**DBH 1**

## Ikas maila: 7

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>BARNE ARAUTEGIA EZAGUTU Ikasturtero berritzen da. Nagusien geletako ordezkariekin proposamenak prestatzen dira aurrena. Gero gelan ere ideiak eta eskari berriak hartzen dira. DBHkoek, egoera berrian kokatzen direnez, hainbat egoera ezagutu behar izaten dute</p>	1	
<p>ORDEZKARIAK AUKERATU eta ARDURAK BANATU: Euskara batzordea, ingurumen batzordea, oharrak banatzeko arduradunak, gelako taldeak eta bikoteak zelan antolatu erabakitzen da. Irteerako dirua hilean behin bankura eramateko arduradun bikoteak egiten dira, adibidez.</p>	1	3
<p>IKASTEKO DENBORA ONDO ANTOLATU 1. galdera hauek egiten dira: Motibazioa zer da? Zein da norberaren motibazioa ikasteko? Gure ahalmenetan sinestu: auto-estimua (handia, apala) 2. Kontzentratzeko baldintzak aztertzen dira: ikas ohiturak (lekua, ordua, denbora eta arloak antolatu, distraitzeko estimuluak saihestu) 3. Agendaren erabilera gogoratu: arloak zelan apuntatu, asteko jarraipena zelan egin... Lehenengo bi saioetarako: Eusko Jaurlaritzaren DBHko tutoretza: "Arrakastarako giltza" jarduera. <a href="http://www.hezkuntza.net">www.hezkuntza.net</a> &gt;hezkuntza berriztatzea&gt;tutoretza materialak</p>	3	9 11
<p>ASEBETETZE INKESTAKO EMAITZAK KOMENTATU ETA HOBETZEKO IRADOKIZUNAK EGIN Aurreko kurtsoaren amaieran bete zuten asebetetze inkesta. Bertan aspektu asko ebaluatzen dira. Haien emaitzak, etapakoak eta orokorrak komentatzen dira. Aukera egoten da iradokizunak egiteko eta zergatiak argitzeko</p>	1	
<p>BESTE IKASTOLA BATEKO IKASLEEKIKO ELKARBIZITZA PRESTATU 1. BERTAKO IKASLEEI BIDALTZEKO AURKEZPENA PRESTATU Trukaketa programa ezagutu, 2. BIKOTEAK EGIN ETA ARAUAK ADOSTU : neska-mutilak, zenbat lagun etxe baten... aurkezpenak kontuan hartzen dira eta laguneren arteko harremanak 3. Haien datozenerako ONGI ETORRIA PRESTATU ETA ARAUAK GOGORARAZI (dirua, mobilak, jantziak...)</p>	3	

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>NORBERAREN ETA GAINERAKOEN BAITAN ZER ALDE ON DAUDEN ERREALISMOZ BILATU ETA BALIOETSI, MUGAK ONARTUZ Maitasungramaren arauak azaldu: metodoa, taldeak sortu, panela, bakoitzak bere gutunazala prestatu...Gero tutoretza saio bakoitzean tarte bat eskainiko zaio honi. Nahi duenak irakur dezake jasotako ohar esanguratsuren bat eta pentsatu eta sentitu duena besteei azaldu.</p>	1 (beste saioetan tarte bat)	1 6
<p>BESTE IKASLEEKIN BATERA EGUN BATZUETARAKO IRTEN  1. AURKEZPENA PRESTATU. Beste ikastetxe batzuetako ikasleekin elkartuko dira. Beraz, gela taldeka antolatu eta aurkezpenak prestatzen dira: olerkiak, play-backak, bertsoak, 2. TAILERRA AUKERATU: egiten den proiektutik kanpo, beste jarduera batzuetan parte hartzen dute interesen arabera. 3. ARAUEI BURUZ HAUSNARTU: berriro agertuko dira bertan agertuko dituzten jarrerak, diruarekin eta mugikorrekin lotutakoak etab.</p>	3	
<p>NORBERAREN BURUA ETA BESTEENA HOBETO EZAGUTU Galdeketa baten bidez (beldurrei buruz, zaletasunei buruz, interesei buruz...) bakoitzak besteen aurrean bere aurkezpena egiten du. Haien artean "sintoniak " agertzen dira eta ezagutzen ez zituzten alderdiak ere bai</p>	3	6
<p>LAGUNEN ARTEKO OPARIA EGIN Adib. Gabonetako lagun izkutua: arauak azaldu eta zozketa egin: norberak egindako zerbait izaten da edo batzuetan adostutako diruarekin erositako zerbait</p>	1	
<p>DROGAK EZAGUTU 1. kontzeptua; Drogak, zer diren eta ez diren 2. Sineskeriak; Drogen (alkohola eta kanabisa) ondorioak. Horien inguruan zer dakiten eta dakitenetik egiak eta fantasiak argitzen dira. 3. Drogak hartzearen arrazoiak aztertzen dira. Edex. "Hordago" materiala. DBH1-1. koadernoak: 1.,2. eta 3. saioak</p>	3	2



JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>BULLYING-ARI ETA TALDE PRESIOARI AURRE EGIN 1. Bizitzan, sortzen diren era askotako mehatxuei baliabideez eta eraginkortasunez aurre egin: lagunen arteko komunikazioa, helduei laguntza eskatzea 2-3Bullyinga zer den; egoera baten lau paperak aztertu: erasotzailea, eraso jasan duen ikaslea, lekua eta aurre egiteko erantzukizuna hartu duen pertsona Zineskola: Irudi Biziak-en unitatea: "Cobardes" pelikula. José Corbacho eta Juan Cruz, (2008)</p>	3	2 5
<p>GATAZKA EGOERA BATI IRTENBIDEA AURKITU Ondorengo prozesua jarraituko dugu bi saioetan adibide desberdinak erabiliz 1. Gatazka definitu: ikuspuntu desberdinak identifikatu; 2. talde 2 edo 3 sortu eta iritzi desberdinak defendatu (suertez egokitzen den taldean) besteei entzunez, errespetuz, iritziak azalduz, txandak eskatuz. Talde bat behatzailea izango da 3. Adostasunetara ailegatu; ondorioak atera eta beste ikuspuntu bat sakontzerakoan aportatzen duenaz hausnartu</p>	2	10 5
<p>TALDEAN HARTUTAKO ERANTZUKIZUNAK EBALUATU Kurtsoan zehar banatu izan diren arduren "memoria" eta ebaluazioa egingo da taldean. Ordezkarien iritzia eta taldearena hartuko dira kontuan. Hurrengo baterako ondorioak gordeko dira.</p>	1 saioetan momentu bat	11
<p>EGOERA BATEAN ERABAKIAK AUTONOMIAZ HARTU Erabakiak hartzeko prozesua ikastea du helburu. Egoera ezberdinekin trebatzen dira (euren adinari dagozkion egoerak) 1. Hartu behar den erabakia identifikatu 2. Aukera guztiak antzeman 3. Aukera bakoitzaren abantailak eta desabantailak aztertu 4. Guztien artean onena hartu (ondorio on gehien eta txar gutxien daukana) 5. Hartutako erabakia abian jarri 6. Hartutako erabakiaren ondorioak aztertu eta 3. atalean aurreikusitakoekin konparatu 7. Aurreikusitako abantailak betetzen ez badira, erabakia zuzendu Edex. "Hordago" programa: DBH1-1. kuadernoa: 6. saioa</p>	2	12

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
----------	-----------------------	-------

## **ERRESPETUZ JOKATU**

Neska-mutilen arteko elkarrizketa bat aukeratu eta errespetu gabe eta errespetuz jokatzeari hausnartu. Adibidez, pelikulatik esketx bat atera (pelikularen 08:50-11:25 bitartean) eta adierazteko moduez hausnartu. Errespetu falta hartzerakoan sentitzen dugunaz ohartu. Adierazteko modu egokiagoak aurkitu.

2

Pertsonen aniztasunaz ohartu eta errespetu falta agertzen diren jarrerak (arrazismoa, homofobia...) baztertu (00:25 minututik aurrera eta 00:39). Pertsonen arteko berdintasunak gehiago dira desberdintasunak baino. Richard LaGraveneser, (2007). *Askatasunaren aldeko idazleak* (Diarios de la calle)

**DBH 2**

## Ikas maila: 8

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>LANKIDEAK HOBETO EZAGUTU Ikasleek datu pertsonalak, arlo akademiko aldekoak, bakoitzaren nortasun eta portaeraren aldekoak, gustuak, ikas ohiturak, gelako giroari buruzko iritziak ...batzen dituen galdeketa betetzen dute banaka. Talde handian eta era laburrean, ikasle bakoitzak datuak azaltzen ditu.</p>	1	
<p>NORK BERE BURUA HOBETO EZAGUTU Ikasle bakoitzak, izen gabeko <i>collage</i> bat egingo du "Hau neu naiz" izenburuarekin, norberaren ezaugarri berezienak azpimarratuz; nolakoa den, zertan sinesten duen, etorkizunerako dituen asmoak... Beste kideek, <i>collage</i> bakoitzari buruzko galderak (errespetuz eginak) edota iritziak egin ditzakete, lanaren egilea asmatzeko helburuaz. Talde txikitik, bakoitzak berea besteei azaltzen die eta besteek egindako komentarioei edo galderei buruz bere iritzia ematen du.</p>	1	5 6
<p>SOZIOGRAMA BETE Gelako kideen arteko harremanak, ikastaldeko azpitaldeak, taldearen kohesio maila eta isolatuta dauden ikasleak ezagutzeko nolakoak diren ikusteko, galdera sorta betetzen dute ikasleek.</p>	1	
<p>ORDEZKARIAREN EZAUGARRIEZ ETA FUNTZIOEZ JABETU ONDOREN, GELAKO ORDEZKARIA AUKERATU Ordezkariaren ezaugarriez eta funtzioez jabetzeko, hausnarketa bultzatzen duen galdeketa bat bete banaka. Taldean, irizpideak adostu ondoren, funtzio eta ezaugarri bakoitzaren puntuazioa kontutan hartuta, ordezkaria eta honen ordezkia aukeratu da.</p>	1	
<p>GELAKO LAGUNEN ARTEKO HARREMANAK AZTERTU ETA EGOERA JASANEZINEN AURREAN KONPONBIDEAK BILATU 1. Harremanak aztertzen dira. Honetarako galdeketa betetzen dute eta emaitzak aztertzen dira. 2. Egoera jasanezinak identifikatzen dira, era honetariko egoerak baleude. Aurreko datuak txantiloian jasotzen dira eta guztien artean identifikatzen dira. 3. Nork bere esku dagoena eskaintzen du konponbideak bilatzeko, eta hobetzeko proposamen hauek aztertzen dira. E.J. <i>Tutoretza materialak: Gure arteko harremanak DBH2.</i></p>	3	6 10

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>ARAZO AKADEMIKOEI IRTENBIDEA EMAN Gela 5 laguneko taldetan banatzen da. Talde bakoitzak dagokion egoera edo kasua ( ikasketa aldeko arazoa ) aztertuko du. (Galderak ematea lagungarria da). Ondoren, talde handian kasu guztiak aztertuko dira debate baten bitartez, talde bakoitzak arazoa gainditzeko eginiko hausnarketa adieraziz</p>	1	1 9
<p>EBALUAZIOAREN AURRETIK BURUTU DUTEN LANAREN INGURUKO HAUSNARKETA EGIN Galderei erantzun eta taulak bete ditzakete ikasleek gaiz gai lortzea espero duten mailaz, ahuleziez, emaitzez eta irakasleek emandako aholkuez. Galdeketan dauden galdera batzuk talde handian eztabaidatu eta bateratu ikasketa ohitura eta teknika on batzuk ezartzeko. Norberak hobetu behar dituen lan arloak zehazten ditu.</p>	1	11
<p>NORBERAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK IDATZI Ebaluazio probak egin eta gero, ebaluazioaren ondorioak aztertu ondoren, irakaslearekin batera hurrengo ebaluaketarako indartu behar diren arloak eta estrategiak identifikatzen dira eta aurrera eramango direnak erabaki.</p>	1	11
<p>LANKIDETZA EDO KOOPERAZIOAREN GARRANTZIARI BURUZ HAUSNARTU 6 pertonez osatutako taldeak sortzen dira, pertsona bat begirale izanik . Taldeak 5 marrazki osatu behar ditu guztien laguntzaz eta arauak kontutan hartuta. Begiraleek taldekideen portaeraz hitz egiten dute eta denen artean ondorioak ateratzen dira. "Marrazki kooperatiboak " jokoak</p>	1	7
<p>ARAZO BATEN AURREAN, TALDEAN, KONPONBIDEA BILATU Talde bakoitzari gatazkatsua den egoera bat aurkezten zaio. Irakasleak taldeko kide bakoitzari konpondu behar duten egoeraren informazioaren zati bat emango dio. Arazo honen alde guztiak kontuan izanda, besteak errespetatuz, entzun eta norberak jastako informazioa argitasun eta errespetuz azalduz, egon litezkeen konponbideei buruz hausnartzen dute guztien artean. Azkenik, nola antolatu den taldea arazoaren aurrean, eramandako jardueren egokitasuna, moderatzailearen papera eta taldekide guztien artean burututako gogoeta izan den aztertzen da.</p>	1	7 10

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>GELAKO GIROAN GERTATZEN DIREN JARRERA ARAZOEN IRTENBIDEAK KONTUTAN HARTU ETA IRITZIA EMAN Portaera eremuko gatazka egoera bat aurkezten da gero eta informazio gehiago agertzen duten hiru pasarteen bidez. Pasarte bakoitza irakurri ostean, bakarka aurrea eta ondoren talde txikietan, hausnarketa bultzatzen da. Azkenik, egoera berdinaren alde aunitz azaltzeko eta kontutan izateko "role-playing" antolatzen da bakoitzak, egoera horren aurrean, egingo lukeenari buruzko iritzia emateko.</p>	1	5
<p>ADISKIDETASUNAK DUEN GARRANTZIAZ HAUSNARTU 1. "El Bola" filma ikusi eta Unitate Didaktikoak proposatzen dituen lanak/galdetegiak (pertsonei ezaugarriak jokabideen eraginak direla eta...) erantzun. 2. Talde txikietan, erantzunak landu ondoren, talde handian eztabaida sortzen da. E.J. "Irudi Biziak" programa.</p>	2	8
<p>ANOREXIA ETA BULIMIA EZAGUTU: JATORRIA ETA ONDORIOAK 1. Taldeka, hasieran gaixotasunen alde teorikoa irakurtzen dute eta horren inguruko galderak erantzuten dituzte. Gaixotasun hau duten pertsonen aurrean proposatzen diren jokabideez hitz egiten dute. Talde bakoitzaren iritzia entzun. 2. Gizarteak eskaintzen duen eredu fisikoa eta norberaren buruaren onarpenari buruz gogoeta egiten da.</p>	2	2 5
<p>ALKOHOLA EDATEAREN ONDORIOAK, MITOAK ETA ERREALITATEAK IDENTIFIKATU ETA AZTERTU 1. Alkohola edatearen ondorioei buruzko informazioa jaso eta alkohola edateko gaur egungo gizartean dagoen premiaz eztabaidatzen da taldeka (talde bat aurka, bestea alde) honetarako galdera proposak eginez. 2. Alkoholaren inguruan zentzuzko arrazoiak eta mitoak zeintzuk diren aztertzen dute, "Hiru marran" izeneko jokoan arituz honetarako. Edex. DBH2rako "Hordago" materiala. Ikasleentzako 3. koadernoko 4. eta 5 lan fitxak</p>	2	2 5
<p>GERTATZEN EDO GERTA DAITEZKEEN BULLYING EGOERETAN AURRE EGITEKO BALIABIDEAK EZAGUTU 1. Gaiari buruz aurretik ezagutzen dutena adierazten dute ikasleek galdetegiaren bidez. Ondoren, fikziozko bullying gertaera labur bat ("Eman bostekoa" DVD) ikusten dute, egoeraren eragileak aztertuz. 2. Zergatik gertatzen den eta egoerari aurre egiteko, gogoetaren bidez eta irakasleak gidatuta, egokiak diren jarrerak ezagutzen dituzte. EREIN. Eman bostekoa DVDa: Bullyngaren prebentzioarako materiala.</p>	2	2 5

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>INAUTERIEN JAIA PRESTATU Aurreko ikasmilako kideekin batera, herrian ikastolaren aldetik aurkezten den emanaldia erabaki eta prestakuntza antolatzen dute. Idazki baten bidez, emanaldirako gurasoentzako gonbitea, egiten dute.</p>	1	3
<p>2.EBALUAZIOA PRESTATU Hartutako konpromisoak berrikusi eta ikasteko eramandako prozesuari buruzko hausnarketa sortarazten da, ebaluaketan arrakasta izateko beharrezko dituen estrategiak azpimarratuz.</p>	1	4
<p>TABAKOARI DAGOZKION MITOAK IDENTIFIKATU ETA GOGOETA EGIN 1. Tabako kontsumoari dagokion informazioa jasotzen dute. 2-.Tabako kontsumoari dagozkion mitoak eta estereotipoak identifikatzen eta aztertzen dituzte, honetarako ikasleak talde txikitan banatzen dira. Euren erantzunak bateratuta, erretzeari buruzko esaldiz osatutako zerrendatik, zentzuzkoak eta mitoak direnak bereiziko dituzte. 3. Azkenean, talde guztien erantzunak jaso eta denon artean azaldu eta eztabaidatu egiten dituzte. E.J. <i>INESI proiektua</i>: Osasun heziketa eta drogamenpekotasun prebentziorako programa</p>	3	2 5
<p>HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALARI BURUZKO INFORMAZIOA HARTU ETA HAUSNARKETA EGIN. 1- Lan taldea, parte hartzea eta hausnarketa ahalbideratzen dituen dinamikaren bidez, sexualitateari buruzko informazioa eta jarrera osasuntsuak diren ohiturak ezagutzen dituzte. 2- Gaiari buruz dituzten sinismenak eta mitoak eztabaidatzen dituzte 3- Gaiaren inguruan, trebetasun pertsonal eta sozial egokiez hitz egiten da.</p>	3	2
<p>3. EBALUAKETA PRESTATU Kurtso hasieran hartutako konpromisoak berrikusi eta ikasteko eramandako prozesuari buruzko hausnarketa sortarazten da, ebaluaketan arrakasta izateko beharrezko dituen estrategiak azpimarratuz.</p>	1	4

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
----------	-----------------------	-------

## **AUKERAKOAK DIREN IKASGAIK HAUTATU**

Lehenengo zikloko bukaeraren ondorengo aukerak eta ibilbidea ezagutzeko, informazioa bilatzen dute: aukerak, kontutan izan behar diren alderdiak, baldintzak ...

1

Galderak eginez, egokiak eta desegokiak diren aukeraketen arrazoiez, hausnartzen dute. Gurasoekin kontrastatu ondoren, kurtso bukaeran, aukeraketa egiten dute



**DBH 3**

## Ikas maila: 9

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>IKASTURTE BERRIARI BURUZ AURRIKUSPENAK EGIN                      Borobilean jarri eta aurrekoarekin edo atzekoarekin hitz egin. Zer espero duzu?. Zer lortu nahi dugu aurtengo ikasturtean?. Taldeari azaltzerakoan, norberak bereaz hitz egin beharrean, ondokoak adierazitakoa agertuko du..Jarrera negatiboak birziklatzera bidali! Beraien arteko komunikazioa bultzatu. E.J. <i>Bizitzarako gaitasunak eta balioak</i> ( bizikidetza eta tutoretza)</p>	1	
<p>GELAKO ARAUAK DENON ARTEAN IPINI Gure eskubideak eta betebeharrak aztertu.Bozkatzeko dugun aukera ezagutu.Eman beharreko pausoak adierazi. Gure ahotsa botoaren bidez entzunarazten dela ohartu. "Arauak era demokratikoan sortzeko programa "</p>	2	2
<p>GELAKO ORDEZKARIAK AUKERATU Talde txikitan delegatu izateko hiru modu desberdin konparatu. Funtzioak erreparasatu. Bozketa planteatu.</p>	1	
<p>IKASTEKO TEKNIKAK IKASI Bakarka/talde txikietan eta talde handian hausnarketa, eztabaida eginez : "<i>Nik nahi izanez gero ikasitakoa erabili dezaket. "Ikasitakoak zertarako balio du?. Hernández, P. (1992). Piele programa. IX. koadernotxoa. TEA Ediciones,</i></p>	1	2 9

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>NIRE LAN METODOA ERREBISATU 1.-Ainararen istorioaren bidez, gauzak azken unerako uzteak, denbora ongi ez planifikatzeak dakartzan ondorioez sentsibilizatu. 2.-Bakarkako galdetegia bete. Asteko ikasketa denboraren plangintza koadro batean plasmatu ( Gantt diagrama). Tutoreak bakarkako lana errebisatu eta jasoko du, ebaluazio ondorengo hausnarketa egiteko garaian kontutan hartzeko. 3.- Kontzeptu mapak egiteko jarraibideak segi. Kontzeptu nagusia identifikatu.Kontzeptu garrantzitsuenak edo hitz gakoak atera. Kontzeptuen artean loturak egin. Multzokatu. Grafikoki adierazi. 4.-Eskemak egiteko jarraibideak. Edukiaren ideia orokorrera hurbildu. Ideien hierarkia ikusi.Atalak eta azpiatalak bereizi, ideia osoak kontuan hartuta. Testuaren eta paragrafoen ideia nagusia idatzi. Edukia logikaz ordenatu eta banatu. Grafikoki antolatu. 5.- Laburpenak egiteko jarraibideak: Testua ulertu. Oharrak idatzi, ideia nagusiak bildu.Lehen eta bigarren mailako ideiak bereizi.Esaldiak egin,testuaren esanahia barne hartzen duten hitz garrantzitsuenak lotuz.Hari nagusia aurkitu, eta ideiak antolatu eta lotu.Narrazio estiloz idatzi,zentzuz eta jarraitutasunez. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Hasi eta Hazi programa</i>. DBH. Bizitzarako gaitasunak eta balioak.</p>	5	4 9
<p>NORBERAREN BILDURRAK EZAGUTU Beldurrak denok ditugula ohartarazi. Egoerak, arrazoiak eta ondorioak aztertu. Emozio hauek kudeatzeko modu egokiak aurkitu. Hernández, P. (1990). <i>Piecap programa</i>. TEA Ediciones, S.A. "Adimen emozionala" " Nocturna pelikula</p>	2	2 5
<p>IRUDI PERTSONALA AZTERTU.NORBERAREN EZAGUTZA GEHITU 1.- Sexualitatearen inguruan adin honetako gazteen bizipenak nola sentitzen diren talde txikitan irakurri eta aztertu. Ideia zaparrada baten bidez sexualitate kontzeptua argitu. 2.-Sexu arriskuen prebentzioa egin. Sexu jokabideen ideia zaparrada bat egin. Arriskuaren araberako sailkapena egin ondoren, hauek ekiditeko baliabideei buruzko erabilgarritasun iradokizunak aurkeztu. 3.-Bullying homofobiko egoera baten deskribapena egin. Deskribapen horren bidez homosexuala izateagatik edo genero rolen arrazoiengatik diskriminazioa identifikatu. Enpatiazko harremanen ezaugarriak bilatu. Ikastolaz kanpoko talde espezializatu batekin prestatu daiteke</p>	3	5 6

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>EBALUAZIO SAIOA PRESTATU 1.Ikasleek dituzten hutsuneak aztertu . Galdetegia bakarka erantzun, taldean komentatu. Ikasterakoan hutsuneak daudela ikusi ondoren, emaitzak hobetu daitezkeela ohartu. 2.Datu bilketa egin: Irakasleen iritziak. Azterketak prestatzeko moduak aztertu, ikasi beharrekoa planifikatu. Jasotako datuei buruzko hausnarketa egin. Tutorearekin, norberak hobetu behar dituen lan arloak zehaztu. <i>La tutoria en la Educación Secundaria</i></p>	2	4
<p>EBALUAZIO ONDORENGO BALORAZIOA EGIN Auto-ebaluaketa egiteko galdetegia bete.Irakasleen iritziak jaso. Azterketen ondorioak atera. Kurtso hasieran egindako lan plangintza errebisatu. Konpromisoak hartu. Denboraren kudeaketa hobetzeko jarraibide praktikoak azaldu. Errekuperazioak antolatu. Gipuzkoako Foru Aldundia. "<i>Hasi eta Hazi</i> " programa. DBH "Nire atzetik, erbia ala dortoka? "</p>	1	4 6 11
<p>ELKARRI LAGUNDU ETA ELKARREKIN JARDUN Talde txikietan egingo da. 1.-"Bahiketaren misterioa ". Bahitzailea nor den aurkitzean datza joko. Taldeko partaide bakoitzak informazio zati bat dauka. Denen informazioa beharrezkoa da. 2.-"Lankidetzat tangram-a". Talde txikiko partaide bakoitzak pieza batzuk ditu figura bat egiteko. Adostasun batetara iritsi behar dira.Egiten duten bitartean ezingo dute hitz egin. 3.-"Mutilak eta Neskak ". Sexu bereko zazpi edo zortzi partaideko ekipoak eratzen dira.Galdekizuna betetzen dute ideiak bilduz.Debatea sortu. Hobekuntzarako helburuak adierazi. Behatzaileak moderatuko du. Taldeko partaide batzuk behatzaileak izango dira eta joko bakoitzaren bukaeran talde txikien funtzionamenduari buruzko informazioa bueltatuko dute denen artean hausnarketa eginez. Maite Garaigordobil. <i>Nortasun eta garapenerako eta giza eskubideen arloko hezkuntzarako programa.</i> Jolas kooperatiboak.</p>	3	3 5 7 1

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
GATAZKEN EDO ZALANTZEN AURREAN DUGUN JOKABIDE KRITIKOA AZTERTU 1.-"Lapurreta"dilema bat planteatzen da. Ikuspegi desberdinak aztertu. Ebazpenerako teknikak azaldu. Egoera dramatizatu. 2.- "Herri epaimahaia egoera arazotsu bat aurkezten da talde handian. Azpi taldetan banatzen da taldea: defentsa eta aurkakoa. Talde bakoitzak aspektu positibo eta negatiboak azaldu behar dituzte. Behatzaileak debatea moderatzen du. Dramatiza daiteke. 3.-"Lau arte zenbatzeko kutxa ": Gatazkak saihesteko eta konpontzeko teknikak: kontrola ez galtzen ikasi. Hitzak erabiltzea gure ideiak defendatzeko. Besteen iritziak eta sentimenduak entzuten jakitea. Gatazka baten aurrean konponbiderik onena zein den baloratzea. Gipuzkoako Foru Aldundia. "Hasi eta Hazi " programa. "Nortasunaren garapenerako eta giza eskubideen arloko hezkuntzarako programa.	3	1 5 6 8 10
BALIOAK ARGITU ETA DROGA KONTSUMOAREKIN ERLAZIONATU 1.-"Elefantea eta itsuen istorioaren" bidez ideia nagusiak identifikatu, ideia partzialak orokortu, jokabideekin alderatu eta bakoitza bere erantzukizun mailaz jabetu. 2.- Egoki datorren istorioa baten bidez, alkoholaren kontsumoa tratatu. Laguna izatea, laguntasuna, balore bezala eztabaidatu. 3.- Lana taldean eginez, situazio konkretu batzuk aurkeztuz, cannabisaren kontsumoa aztertu. Sentimenduak adieraziz komunikazioari buruz elkarrizketa egin. (Ikastolaz kanpoko talde espezializatu batekin ere presta daiteke) Edex. <i>Hordago materiala</i> . DBH3. "Drogak larrugorrian " eta " Ni nerabe gaztea."	3	2 3 8
EBALUAZIO SAIOA PRESTATU Datu bilketa egin: Irakasleen iritziak jaso. Azterketak prestatzeko moduak aztertu, ikasi beharrekua planifikatu. Jasotako datuei buruzko hausnarketa egin. Norberak hobetu behar dituen lan arloak zehaztu.	1	4
EBALUAKETA ONDORENGO BALORAZIOA EGIN Auto-ebaluazioa egiteko galdetegi bete. Irakasleen iritziak jaso. Azterketen ondorioak atera. Kurtso hasieran egindako lan plangintza errebisatu. Konpromisoak hartu. Denboraren kudeaketa hobetzeko jarraibide praktikoak azaldu. Errekuperazioak antolatu. Gipuzkoako Foru Aldundia. <i>Hasi eta Hazi</i> programa. DBH "nire atzetik, erbia ala dortoka?	1	4 6 11

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ / ZENBAT SAIO</b>	<b>Konp.</b>
<p>3. DBH ONDOREN ZER?. ERABAKIAK HARTU 1. – Erabakien ondorioez jabetu: Irakurgaia, kontakizuna, aztertu. (Erabakiak hartu izanaz). Taldean komentatu eta ondorio batzuetara iritsi. 2.- 4. Maila bukatu ondorengo Heziketa Sistema azaldu.Dauden bideak aurkeztu. Datorren ikasturtean zehar izango dituzten ikasgaiak azaldu. 3.- Zalantzak argitu. 4.mailako ikasleen esperientziak azaldu. Ziklo formatiboko ikasl batekin eta Batxilergoko beste batekin solasaldia. Hautazko ikasgaiak aukeratu.</p>	3	6 12
<p>TUTORITZA SAIOAK EBALUATU Gogorarazi ikasturtean zehar tutoretza arloan egindako lana. Taldean komentatu hobetu beharrekoak eta ondo egon diren gauzak.</p>	1	4 11

**DBH 4**

## Ikas maila: 10

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
IKASTURTE BERRIAREN AURKEZPENA EGIN. Egutegia eman eta azaldu: hiruhilabete bakoitzeko irtenaldiak, azterketak, frogak eta notak. Orduategia eman eta azaldu (kokapena ere). Gelako inbentarioa denon artean egin. Zerrendak pasa (nortzuk jantokian, bus-geltokia, aukerakoen zerrenda). Ikasle bakoitzak bere fitxa bete (tutorea etxekoekin harremanetan jartzeko).	1	
GELAKO ARDURAK BANATU Arduradunak bozketa bidez aukeratuak izango dira. Arduradunen funtzioak azalduko ditu tutoreak eta gelako ardurak bananduko dira.	1	
ELKARBIZITZARAKO ARAUAK EZAGUTU. Ikastola barruko funtzionamendurako araudia eta mailari dagokion funtzionamendua gogoratu	1	
PEDAGOGI BATZORDEKO ORDEZKARIEN FUNTZIONAMENDUA ETA IKASTOLAKO ORGANIGRAMA GOGORATU. ORDEZKARIak HAUTATU 1.saioan: ordezkari izateko boluntarioak eskatu eta DBH-2.zikloko zerrendak gela guztietan eskegi boluntarioak azpimarratuz. 2.saioan: astebete igaro ondoren, ordezkariak aukeratu bozketa bidez.	2	
ORIENTAZIO AKADEMIKOA: LEHEN URRATSAK 1.saioan: Ikasturtean zehar jarraituko den orientazio programa azalduko du tutoreak. Egin behar dituzten frogen balioa ere azalduko zaie ikasleei eta frogak egitean izan behar duten jarrerren garrantzia azpimarratuko da. Hezkuntza-sistema azaldu eta orientazio akademikora heltzeko eman beharreko urratsen garrantzia adieraziko zaie. 2.saioa: "DBH ostean zer?" liburuxka banatu . Liburuxkaren egitura azaldu ondoren, liburuxkako 1.urratsagaz hasiko dira ("Norbere burua ezagutu " jarduera). E.J. "DBH ostean zer?" liburuxka.	2	6 12
OSASUN ARAZOEI AURREA HARTU. "Irudi Biziak " programaren barnean aukeratutako pelikula ikusi eta ondoren gida pedagogikoan oinarritutako lana egin. Gidako atal batzuk aukeratuko dira E.J. "Irudi biziak " programa	1	8



JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
TALDEA EGITEN JOAN Talde dinamikak egiten dira elkarren lagun izaten joateko: 1.saioa: aurreiritziak baztertu. 2.saioa: sentimenduak eta iritziak askatasunez adierazi.	2	8
ORIENTAZIO AKADEMIKOA. Ikasleek taldeko frogak egiten dituzte ikastolatik kanpoko psikologo batekin.	(goiz oso bat)	12
IKASTOLA OSOKO OSPAKIZUNETAKO IKASLEEN ARDURAK ETA PARTE HARTZEAREN ANTOLAKETA BIDERATU (Euskara eguna eta gabonetako jaialdia). 1.saioan: "Euskeraz Bizi" proiektuko ordezkariak bozketa bidez aukeratu. Euskara egunerako ekintzak bilatu eta adostu. 2.saioan: Gabonetarako ekintzak prestatu: Kantu lehiaketarako abestiak asmatu edo aukeratu eta gela girotu, apaindu.	2 (azaroan eta abenduan)	3 11
1. HIRUHILEBETEKO LANA EBALUATU Ikasleek fitxa baten bidez informazioa emango diote tutoreari: azterketen emaitzei buruz, gelako lanari buruz, etxeko lanak eta, orokorrean, gelako giroari buruz. Ikasleek hurrengo hiruhilekorako hobekuntzak proposatuko dituzte eta idatziz emango dizkiote tutoreari.	1	11
IKASLE BEZALA DITUGUN HUTSUNEAK AZTERTU Ikaskuntza prozesua erregulatzea da helburua. Ikasterakoan hutsuneak dauzkatela ikusarazi eta gauzak ondo eginez, emaitzak hobekian izan daitezkeela ohartu.	1	1 2 5 6
ORIENTAZIO AKADEMIKOA. 1.saioa: liburuko 2.urratsagaz jardunean arituko dira ("Lanbide mailako interesari buruzko galdeketa "). 2.saioa: liburuko 3.urratsa (" Gaitasunak baloratzeko galdeketa "). 3.saioa: liburuko 4.urratsa ("Nortasuna definitzeko galdeketa "). 4.saioa: liburuko 5.urratsa ("Emaitza akademikoei buruzko galdeketa"). 5.saioa: liburuko 6.urratsa ("Datuen bilketa "). 6.saioa: jarraitutako prozesu osoari buruzko informazioa jasotzeko ikasleek galdeketa bat betetzen dute, zerbait ondo ulertu gabe gelditu zaien jakiteko. 7 eta 8.saioak: ikasleak beste zentro batzuetara doaz bisitak egitera (zentro bat Lanbide Heziketakoa da, bestea Batxilergakoa). E.J. "DBH ostean zer?" liburuxka.	8	6 12

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
2.HIRUHILABETEKO LANA EBALUATU ETA NORBERAREN HUTSUNEAK AZTERTU. Ikasleek fitxa baten bidez informazioa emango diote tutoreari: azterketen emaitzei buruz, gelako lanari buruz, etxeko lanak eta, orokorrean, gelako giroari buruz. Hiru hilabete hauetako norberaren ikaskuntza prozesua erregulatzeko jarritako estrategiak berrikusi Ikasleek hurrengo hiru hilabeteetarako hobekuntzak proposatuko dituzte eta idatziz emango dizkiote tutoreari.	1	2 5 11
IKASTOLA OSOKO OSPAKIZUNETAKO IKASLEEN ARDURA ETA PARTE HARTZEAREN ANTOLAKETA BIDERATU (Ikastola eguneko jaialdia). □ 1.saioan: Ikastola egunerako jarduerak adostu eta antolatu □ 2.saioan: Gurasoentzat ikuskizuna adostu eta antolatu (jantziak, beharrezko materiala, entsaioak).	2	3 11
OSASUN ARAZOEI AURREA HARTU. "Irudi Biziak" programaren barnean aukeratutako pelikula ikusi eta ondoren gida pedagogikoan oinarritutako lana egin. E.J. <i>Irudi biziak programa</i>	1	8
TALDEA EGITEN JOAN Tolerantzia/ez-tolerantzia jarrerak konparatzen dira. Eguneroko bizitzako gertaerak gogoratu, eztabaida sortuko da galdera honetatik abiatuta: Zerekin izan tolerantea edo ez-tolerantea Ondoren, egunkarietako albisteetan identifikatuko dira horrelako jarrerak.	1	8
SEXUALITATEARI BURUZKO AURRERITZIAK JASO Gai hau aditu batek landuko du.	4	2
OSASUN ARAZOEI AURREA HARTU. "Irudi Biziak " programaren barnean aukeratutako pelikula ikusi eta ondoren gida pedagogikoan oinarritutako lana egin. E.J. <i>Irudi biziak programa</i>	1	8

**BATX. 1**

## Ikas maila: 11

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>ELKARBIZITZA ARAUAK ETA MAILA HONI DAGOZKION FUNTZIONAMENDU ARAUAK EZAGUTU. Eguneroko funtzionamendua aipatu: ordurako etortzea, material espezifikoaren beharra arloen arabera, koadernoen banaketa... Arautegia ezagutu eta gelako arauak adostu</p>	<p style="text-align: center;">1 Ikasturte hasieran</p>	<p style="text-align: center;">10</p>
<p>GELAKO ORDEZKARIA HAUTATU Betebeharrak aztertu. Konpromisoaren garrantzia azaldu. Ordezkaria hautatzeko prozedura aurrera eraman.</p>	<p style="text-align: center;">1 Ikasturte hasieran</p>	
<p>BALIOEZ PENTSATU ETA ONDORIOAK ATERA "<i>Irudi Biziak</i> " programaren barnean aukeratutako pelikula ikusi eta ondoren gida pedagogikoan oinarrituta lana egingo da. Gidako atal batzuk aukeratuko dira. E.J. '<i>Irudi biziak</i>' programa</p>	<p style="text-align: center;">1</p>	<p style="text-align: center;">8</p>
<p>IKASTEKO TEKNIKAK PRAKTIKAN JARRI Batxilergoko etapari dagozkion estrategiak ezagutaraziko zaizkie ikasleei eta beharrezkoak diren trebetasunak praktikatu dituzte. 1.Saio batean Batxilergoan beharrezkoak diren trebetasun ez informazioa emango zaie hori azaltzen duten materiala beraien batera aztertuz. Informatika gelan interneten eskuragarri dauden hainbat material aztertzen ere lan egin daiteke. 2.Hurrengo saioan, espresuki aukeratutako testu-ikasgai batzuekin lan egingo da.</p>	<p style="text-align: center;">2</p>	<p style="text-align: center;">4</p>
<p>ELKARREKIN LANEAN JARDUN Ikasleen arteko elkarlana sustatzea da helburua Ikasleak bikoteka edo talde txikietan antolatuko dira. Ikasleak taldekatzeko irizpideak: arlo batean zailtasunak dituen ikaslea arlo horretan laguntza eskaini ahal dion ikaslearekin jarri. 1. Ikasleen arteko elkarlanerako irizpideak argituko dira. Ikas arlo bat aukeratuko du talde edo bikote bakoitzak. 2.Lan kooperatiborako dinamikaren bat aurrera eraman.</p>	<p style="text-align: center;">2</p>	<p style="text-align: center;">3</p>

**ZAURI-ARRISKUEZ OHARTARAZI ETA HAUSNARKETA EGIN**  
Ikastolaz kanpoko arduradun batek ikasleekin gai honi dagozkion jarrerak eta jakin beharrekoen inguruan lan egingo du. *UNESPA elkarteak* (Lesión medular espinal delakoa) antolatu dezake saioa.

1

2

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>ELKARTASUNA SUSTATZEKO PROIEKTU BATEN AURKEZPENA  Batxilergo 2.mailako ikasleentzako elkartasun proiektuaren aurkezpena egingo zaie Batxilergo 1.mailakoei: Zertan datzan, aurreko urteko esperientziaren aurkezpena eta ikasturte honetan zehar 1.mailako ikasleek proiektuan parte hartzeko dituzten aukerak aurkeztuko zaizkie. Proiektuaren ikasturteko arduradunak eta Batxilergo 2. mailako ikasle arduradunen batek egingo dute aurkezpena. Oharra: egokia iruditzen zaigun edozein elkartasun proiekturen berri eman ahal zaie.</p>	1	6 8
<p>1.EBALUAKETA SAIOA PRESTATU. Datu orokorren bilketa egin: notak, irakasle on balorazioak, ikasle on balorazioak, ikasturte hasierako inpresioak... Datuei buruzko hausnarketa egin eta ondorioak atera. Ikasturterako neurriak adostu (Ikasle on jokabideaz, errendimenduaz...) Irakasle taldeari zuzendutako oharra, proposamen zehatzak, aurkeztu.</p>	1	4 7 11
<p>BANAKAKO IKASKETAN KONPROMEZUAK HARTU.  Ebaluazioaren ondoren, norbere emaitzak aztertuta, ikasle bakoitzak 2. ebaluaketarako konpromisoak idatziko ditu eta tutorearekin adostuko ditu, horiek aurrera eramateko behar dituen laguntza eta estrategiak zehazteko. Irakasleak konpromisoak jasotzeko txantiloia banatuko die eta ikasleek bertan idatziz jasoko dute. Tutore eta ikasleak kopia bana gordeko dute, aldiro errebisioa egiten joateko.</p>	1	9 11
<p>BALIOEZ PENTSATU ETA ONDORIOAK ATERA <i>Irudi Biziak</i> programaren barnean aukeratutako pelikula ikusi eta ondoren gida pedagogikoan oinarrituta lana egingo da. Gidako atal batzuk aukeratuko dira. E.J. <i>Irudi biziak programa</i></p>	1	8

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ / ZENBAT SAIO</b>	<b>Konp.</b>
<p>IKASTOLA OSOKO OSPAKIZUNETAN IKASLEEN PARTE HARTZEA ANTOLATU (Euskararen eguna, Olentzero ospakizuna eta Ikastolako jaia) 1. saioan : Euskaraz Bizi taldeak ospakizun zehatz hauetarako egiten duen proposamena aurkeztu eta ikasleen iritzia eta iradokizun zehatzak jaso. Parte hartzeko prest daudenen zerrenda jaso (taldeak osatuz). Ardura eta konpromiso arauak argi utzi. 2. saioan: Talde bakoitzak norbere antolaketa zehatza egingo du: materiala prestatu, entsaioak, arduradunak izendatu.... Prestaketa hauen jarraipena jolas-orduetan egingo da ospakizun egunak iritsi arte.</p>	2	11
<p>BANAKAKO IKASKETA-KONPROMISOEN JARRAIPENA EGIN eta ELKARREKIN LANA EGIN Tutoreak ikasleekin banan bana hitz egin behar duenez, saio honetarako bi jarduera desberdin proposatzen dira. Ikasle bakoitzak 2.ebaluaketarako hartutako konpromisoak baloratzen dira eta jarraipena eman: orain artekoa baloratu, hobetu beharrekoak eta mantentzekoak idatziz. Lehenengo, ikasleak bakarka hausnarketa egingo du (aurreko atalak baloratzeko txantiloia izango du), eta ondoren tutorearekin kontrastatu eta hurrengo urratsak markatuko dituzte. Tutoreak banan bana ikasleekin elkarrizketatxoak dituen bitartean ikasleek beraien artean arlo bat aukeratuko dute talde txikietan edo bikoteka lana egiteko. Ikasleak taldekatzeko irizpideak: arlo batean zailtasunak dituen ikaslea arlo horretan laguntza eskaini ahal dion ikaslearekin jarri.</p>	1	3 9 11
<p>LAN BAT EGITEKO JARRAITUTAKO PROZESUA ARRETAZ DESKRIBATU ETA EBALUATU Ikasleei idatziz egoera bat aurkeztuko zaie . Gela 4 edo 5eko taldeetan banatu. Bi taldek egoera horri aurre egiteko lanaren planifikazioa egin beharko dute: eman beharreko pausuak aztertu eta deskribatu. Beste bi taldeei egoera horri aurre egiteko modu desegoki bat aurkeztuko zaie, planifikaziorik gabekoa, eta horren ondorioak aztertu beharko dituzte. Bukaeran taldeak lan bat egiteko eman behar diren pausuen zehaztapenaren garrantziaz hitz egingo dute. Eman beharreko pausuekin gelan ipintzeko mural bat egingo dute.</p>	1	3 4 11
<p>ORIENTAZIOA: EUROPAR UNIBERTSITATE EREMUARI BURUZKO INFORMAZIOA JASO Europar Unibertsitate Eremu berriaren aurkezpen saioa (Bolonia Plana). Ezaugarriak azaltzen zaizkie power point batekin eta beraien zalantzak argitzen dira.</p>	1	12

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
DROGEN PREBENTZIO SAIOAK: INFORMAZIOA ELKARREKIN TRUKATU ETA ONDORIOEZ PENTSATU Ikastolaz kanpoko arduradun batek ikasleekin gai honi dagozkion jarrerren eta jakin beharrekoen inguruan lan egingo du.	2	2
2. EBALUAKETA SAIOA PRESTATU Datu orokorren bilketa egin: notak, irakasleon balorazioak, ikasleon balorazioak, ikasturte hasierako inpresioak... Datuei buruzko gogoeta egin, ondorioak atera. Ikasturterako neurriak adostu (Ikasleen jokabideaz, errendimenduz...) Irakasle taldeari zuzendutako oharra aurkeztu: proposamen zehatzak idatzi.	1	4 7 11
BANAKAKO IKASKETAN KONPROMEZUAK BERRIUKSI 2. Ebaluazioaren ondoren, norbere emaitzak ikusita eta lehenago hartutako konpromisoak aztertuta, ikasle bakoitzak 3. ebaluaketarako konpromisoak idatziko ditu eta tutorearekin adostuko, horiek aurrera eramateko behar dituen laguntza eta estrategiak zehaztuz. Konpromisoak jasotzeko aurreko txantilo berbera erabiliko da eta ikasleek bertan idatziz jasoko dute helburu berria. Tutore eta ikasleak kopia bana gordeko dute, aldiro begiratzen joateko.	1	9 11
HIESA ETA SEXUALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA JAO ETA GAIARI BURUZ HITZ EGIN Ikastolaz kanpoko arduradun batek ikasleekin gai honi dagozkion jarrerren eta jakin beharrekoen inguruan lan egingo du.	2	2
ORIENTAZIO SAIOAK: BATXILERGO ONDORENGO AUKERAK EZAGUTU, AZTERTU ETA ERABAKIAK HARTU 1. SAIOA: <i>Batxilergo ondoren, zer?</i> Aurkezpen saio orokorra izango da ikasturte honetan egin beharrekoaz eta hurrengoari dagokionaz: ibilbideak, epeak, ze aukera dagoen... Aurkezpenean hurrengo ikasturteko aukerako ikasgaien baldintzak ere azalduko zaizkie. 2. SAIOA: <i>Batxilergo ondoren, zer?</i> Aukerak egiten joateko dauden baliabideak aztertu eta berauek erabiltzeko saioa: orienta programa, web orri jakin batzuk...	2	12



JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
<p>BANAKAKO IKASKETA KONPROMISOEN JARRAIPENA EGIN ETA ELKARREKIN LANEAN JARDUN Tutoreak ikasleekin banan bana hitz egin behar duenez, saio honetarako bi jarduera desberdin proposatzen dira. Ikasle bakoitzak 3.ebaluaketarako hartutako konpromisoak baloratu eta horiei jarraipena emango zaio: orain artekoa baloratu, hobetu beharrekoak eta mantentzekoak idatzi. Lehenengo, ikasleak bakarkako hausnarketa egingo du (aurreko atalak baloratzeko txantiloia izango du), eta ondoren tutorearekin kontrastatu eta hurrengo urratsak markatuko dituzte. Tutoreak banan bana ikasleekin elkarrizketatxoak dituen bitartean ikasleak beraien artean 3 ikasleko taldetan edo bikoteka jarriko dira. Hurrengo egunetarako egin beharreko lanen bat aukeratu dezakete elkarlanean aritzeko.</p>	1	3 9 11
<p>ORIENTAZIO SAIOAK: BATXILERGO ONDORENGO IKASKETEN AURREAN MOTIBATU 1.SAIOA: "Ikasteko Xedea". Enpresa munduan urteetan lanean jardun duen pertsona batek enpresek eskatzen dutenaz hitz egingo die (formazioa, balio pertsonalak, erronkak, bizi poza...). Saio hau interaktiboa izango da. Ikasleek, entzuteaz gain, beraien kezkak adierazi eta galdetzeko tartea izango dute. 2.SAIOA: <i>Esperientzien ezagutza</i>. Ikasle ohien esperientziak ezagutu. Ibilbide desberdinak izan dituzten zenbait ikasle beraien esperientziak kontatzera etorriko dira. Aurretik, ikastolan, ikasleek beraien zalantzak, beldurrak nahiz interesak agertuz zerrenda egingo dute datozenentzat gidoi gisa.</p>	2	12
<p>ELKARTASUNA SUSTATZEKO PROIEKTUARI JARRAIPENA EMAN Batxilergo 2.mailako ikasleek 1.batxilergokoei ikasturtean zehar egindakoaren berri emateko tartea da (bidaiaren bideoa aurkeztu, dirua lortzeko bideak iradoki, ...). Esperientzia ezagutu eta jarraipena emateko urratsak zehaztu daitezke. Proiektuaren ikasturteko arduradunak eta Batxilergo 2. mailako ikasle arduradunek prestatuko dute saioa.</p>	1	6 8
<p>3.EBALUAKETA SAIOA PRESTATU -Datu orokorren bilketa egin: notak, irakasle on balorazioak, ikasle on balorazioak, ikasturteko balorazioa... -Datuei buruzko balioespena egin: taldearen funtzionamenduaz, irakasle on funtzionamenduaz, ... -Irakasle taldeari zuzendutako oharrak idatzi, proposamen zehatzak aurkeztu.</p>	1	4 7 11

**BATX. 2**

## Ikas maila: 12

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
OINARRIZKO ARAUTEGIA GELAN AZALDU ETA AZTERTU	1	
ORDEZKERIEN HAUTAKETA EGIN Ordezkarien funtzioak aztertu. Ordezkarien hautaketa egin.	1	
TUTORITZAREN PLANA AZALDU ETA AZTERTU Ikasleei 2 edo 3 gai proposa ditzatela eskatu, tutoretza planean txertatzeko.	1	
IKASBIDAIA ANTOLATU <input type="checkbox"/> Nora joan erabaki. <input type="checkbox"/> Baldintzei berriz begiratu. <input type="checkbox"/> Ikastetxeko dokumentuak banatu eta irakurri. <input type="checkbox"/> Dirua jasotzeko ekintzak antolatu.	2	
ORIENTAZIO PROFESIONALA : UNIBERTSITATE IKASKETAK ARAKATU Unibertsitateko agenda banatu eta informazioa aztertu.	1	12
1.EBALUAKETAKO AZTERKETA ASTEA KUDEATU Azterketa astea aztertu eta orduak, egunak eta lekuak proposatu.	1	
ORIENTAZIO PROFESIONALA : UNIBERTSITATERA HURBILDU 1. Sartzeko tramite administratiboak azaldu eta egutegia ezagutarazi Unibertsitateko bilera informatiboan egutegia ezagutarazi. Unibertsitateak bisitatzeko egonaldiak ezagutarazi eta egin behar diren eskaerak kudeatu (EHU, MU, DEUSTO,... ). 2. Selektibitate berria ezagutu eta aztertu. Simulazioak egin euren egoera errealekin ( ikastetxeko power point). 3. Ikasle Ohiak gelara hitz egitera ekarri. Solasaldia.	3	12
IKASTOLAREKIKO GOGOBEETETASUNAZ HAUSNARTU Gogobetetasun inkestak bete.	1	

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ / ZENBAT SAIO</b>	<b>Konp.</b>
IKASBIDAIA ANTOLATU Ikas- bidaia burutzeko azken urratsak finkatu : ekipaia, janaria,taldeen antolaketa, ... Gurasoei informazioa emateko zirkularra banatu.	1	
1. EBALUAZIOA PRESTATU Ebaluazioaren hausnarketa gelan egin : Balorazio orokorrak: irakasle on balorazioak, ikasle on balorazioak, ikasturte hasierako inpresioak. Irakasle taldeari zuzendutako oharrak: proposamen zehatzak jaso.	1	4 11
1.EBALUAZIOAREN ONDOREN BANAKAKO KONPROMISOAK HARTU Ebaluazio saioaren ondorioak komentatu eta hobetzeko proposamenak eta konpromisoak hartu eta agendan idatzi - Taldean (talderako) - Bakarka (norberetzat eta taldearekiko)	1	4 11
ORIENTAZIO PROFESIONALA : UNIBERTSITATE IKASKETEI BURUZ INFORMAZIOA JASO EHUK atera dituen titulu berriak aztertu. EHUren eskaintza. Gradu bakoitzak zer lantzen duen Gradu bakoitzaren lan eremua	1	12
ORIENTAZIO PROFESIONALA: ESPERIENTZIEN BERRI JASO Unibertsitatean ikasle izandakoekin solasaldia. Ikasketa teknikoak egin dituzten ikasle ohiekin hitz egin.	1	12
ORIENTAZIO PROFESIONALA : LANBIDE HEZIKETARA HURBILDU Hezkuntzako organigrama berriz gogoratu Lanbide heziketako familiak eta ziklo berriak aurkeztu Lanbide Heziketatik Unibertsitatera sartzeko baldintzak azaldu	1	12
2.EBALUAZIOAREN AZTERKETA ASTEA KUDEATU Azterketa astea aztertu eta orduak, egunak eta lekuak proposatu	1	
ORIENTAZIO PROFESIONALA : MONDRAGON UNIBERTSITATEKO INFORMAZIOA JASO MUKo unibertsitatekoek daukaten ikasketa plangintza ezagutu	1	12

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
ORIENTAZIO PROFESIONALA : DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO INFORMAZIOA JASO DEUSTUKO Unibertsitateko ikasketa plangintza ezagutu.	1	12
ORIENTAZIO PROFESIONALA : SELEKTIBITATE AURRETIKO IZEN-EMATEA EGIN <input type="checkbox"/> Selektibitatean aurkezteko datuak bete. <input type="checkbox"/> Beste zenbait izapide egin.	2	12
ORIENTAZIO PROFESIONALA: ESPERIENTZIAK EZAGUTU Unibertsitatean ikasle izandakoekin solasaldia. Zientziako ikasketak egin dituzten ikasle ohiekin hitz egin.	1	12
2 . EBALUAZIOA PRESTATU 2. Ebaluazioaren hausnarketa gelan egin : Arloz arlo 2.hiruhilebetean izandako zailtasun eta dinamika orokorra aztertu. Gelako jarrerak balioetsi, laguntza orduaren erabilera aztertu ... Irakasle taldeari begira egindako hausnarketak azaldu.	1	4 11
2. EBALUAZIOAREN ONDOREN BANAKAKO KONPROMISOAK HARTU Ebaluazio saioaren ondorioak komentatu eta hobetzeko proposamenak eta konpromisoak hartu: - Taldean (taldearentzat) - Bakarka (nork beretzat eta taldearekiko)	1	4 11
ORIENTAZIO PROFESIONALA: UNIBERTSITATERA HURBILDU EHU ezagutzeko ematen diren aukerak ezagutarazi. Fakultateetako <i>ate irekien</i> saioetara joan aldiak antolatu.	1	12
UNIBERTSITATEKO ATE IRIKIEN JARDUNALDIETAN PARTE HARTU 1. Ikasketa interesen arabera taldeak sortu. Talde bakoitzak ikusi behar dituen ikasketei buruz galderak eta zalantza guztiak prestatu. 2. Informazio guztia bildu eta ordenatu Gelan, taldeek ikusitakoa eta jasotako ikasketen informazioa elkarri eman. Irizpide batzuk jarraituta, egindako lana ebaluatu.	2	4

JARDUERA	NOIZ / ZENBAT SAIO	Konp.
ORIENTAZIO PROFESIONALA : IKASKETA-ESPERIENTZIAK EZAGUTU Humanitatezko ikasketak egin dituzten ikasle ohiekin solasaldia.	1	12
ORIENTAZIO PROFESIONALA : LANBIDE HEZIKETARA HURBILDU Eskualdeko Lanbide Hezkuntzari buruzko informazioa bildu. Inguruan dauden Ikastetxeen ziklo formatiboetako eskaintza ezagutu eta aztertu	1	12
ORIENTAZIO PROFESIONALA : LANBIDE HEZIKETARA HURBILDU Lanbide Heziketari buruzko <i>ate irekien</i> informazioa eman eta bisitak antolatu.	1	12
3. EBALUAZIOAREN AZTERKETA ASTEA KUDEATU Azterketa asteari begira orduak, egunak eta lekuak proposatu.	1	
SELEKTIBITATEA PROBARA GERTURATU Arloz arlo simulazioak ikusi eta egin.	1	
LAN MUNDUA ARAKATU Taldeak egin eta bakoitzak lanbide bat aukeratzen du, lanbide horren inguruan informazio zehatza jasotzeko Lanbide horretan aritzen diren langileei egiteko elkarrizketak prestatu. Lan tokiak ezagutu. Informazio guztia Power Point bitartez gelan azaldu	1	4

**TUTOREAREN  
BESTE  
EGINKIZUN  
BATZUK**

## Tutoea ikasleekin, banaka Tutorea beste irakasleekin

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ</b>
Ikasleak ikasturterako dituen igurikapenak ezagutu.	IKASTURTE HASIERAN
Etxeko lanak egiteko moduz hitz egin: Ekintza osagarriak eta etxean egin beharreko jarduna jasoko duen dokumentua idatzi eta aisialdia antolatu. Asteko ikasteko denbora planifikatu eta idatziz jaso	URRIAN
Etengabeko ebaluazio gisa Ikaslearen ikasketa prozesua nola doan informatu: ondo badoa egiten ari den esfortzua baloratu, hobetu beharreko arloak zehaztu, zailtasunak baditu zailtasunei nola aurre egin planifikatu,...	EBALUAKETA ERDIAN
Ikasleari informazioa eman irakasle batzarrean esandakoa komunikatuz (errendimendua, jarrera, momentuko kalifikazioa, falta diren lanak...) eta erregistro baten bere usteak eta errealitatea alderatu. Aurrera begirako konpromisoak hartu.	EBALUAKETA AMAIERAN
Ikasle jakin batzuekin, aurretik adostutako helburuak berrikusi.	BEHARREZKOA DEN KASUETAN
Zuzenki ikasleari dagozkion erabakiak komunikatu	BEHARREZKOA DEN KASUETAN
Arazo edo egoera pertsonal baten aurrean erabakiak hartu	BEHARREZKOA DEN KASUETAN
ZAILTASUN EMOZIONALAK LANDU Ikaslearen zailtasun emozionalak entzun, ulertu eta hauek bideratzen lagundu.	BEHARREZKOA DEN KASUETAN
GATAZKA EGOERA HITZAREN BIDEZ KONPONDU Gatazka egoerez hitz egin. Sentimenduak jaso eta besteenak entzun. Irtenbideak bilatu eta egoera hori konpontzeko konpromisoak idatziz jaso.	BEHARREZKOA DEN KASUETAN
IKASLE BERRIEI HARRERA -Aurkezpena egin -Informazioa eman - Hasierako balorazioa egin	ETORRI AHALA
HURRENGO URTEEI BEGIRA ERABAKIAK HARTU. · Ikasteko asmoak ezagutu · Errendimendua balioetsi · Hautazko ikasgaiak azaldu · Ikasteko asmoak ezagutu · Dauden irteerei buruz hitz egin · Hautazko ikasgaiak aukeratzen lagundu · Ibilbideak aurreikusi. · Behar izango dituen informazio iturriak eman	



<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ</b>
IKASLEEN LEHEN INFORMAZIOA HARTU Ziklo berria hasterakoan, tutorea izandakoarekin batzartzen da ikasleen lehenengo informazio esanguratsua hartzeko: egoera pertsonalak zein akademikoak izan daitezke (egokitzapenak...)	Ziklo berriaren hasieran
IKASLEEN AURRE-EBALUAKETA EGIN Ebaluaketa erdian ikasle bakoitzaren inguruko egoerari buruzko aurre-balorazio bat egiten du irakasle taldeak. Tutoreak bere gelaren jarraipena egiten du (erregistroak hartu, proposamenak, errendimendua, huts egiteak, kalifikazioak...) Behar den kasuetan egoera hobetzeko neurriak hartzen dira, irakasle eta orientazio taldeko partaideen proposamenak kontuan hartuz.	Ebaluaketa bakoitzean behin
IKASLEEN JARDUERA EBALUATU Ebaluaketa amaitzen denean irakasle taldeak ikasle bakoitzaren inguruko egoerari buruzko balorazioa egiten du. Tutoreak bere gelaren jarraipena egiten du (erregistroak hartu, proposamenak, errendimendua, huts egiteak, kalifikazioak ...) Behar den kasuetan egoera hobetzeko hartu diren neurriak ere bertan baloratzen dira, beren lorpen maila zehaztuz. Zikloen amaieretan promozionatu ala ez erabakiko da	Ebaluaketa bakoitzean behin
BESTE IRAKASLEEI IKASLEEN INFORMAZIO ESANGURATSUA EMAN eta behar denean ESKU HARTZEAK ADOSTU Ikasketetan, ikaslearen jarreretan edo egoera animikoan eragina eduki dezakeen informazioa konpartitu, gurasoek edo ikasleak berak emanda. Dagokionean, eskuartze zehatzak adosten dira.	Behar denean, behar beste saio
MAILAKO TUTOREAK ETA ORIENTATZAILEAK TUTORITZA PLANIFIKATU ETA EBALUATU Egin beharreko egokitzapenak, aldaketak eta hurrengo baterako egokiak izan daitezkeen jarraibideak gordeko dira dagokion dokumentuan	Hilean behin
ORIENTATZAILEAREKIN ELKARLANEAN ARITU 1- Horrela dagokionean, Ikasleen edo taldearen ikasketa edo portaeren inguruko balorazioak egiten dira eta arazoa identifikatzen da. 2- Ikasle bat beste profesional batengana bideratzeko aholkua adostu dezakete 3- Ikasle jakin bati buruzko curriculum egokitzapenak gauzatzen dute	Behar denean

JARDUERA	NOIZ
----------	------

## **ORIENTATZAILEAREKIN ETA PTarekin eta BGarekin**

(horrela dagokionean) ELKARLANEAN ARITU

1- Ikasleen ikasketa esku hartzea definitu eta bideratu. Behar denean

2- Ikasle jakin bati buruzko curriculum egokitzapenak gauzatu eta behar diren errekurtsioak bideratu

## Tutorea familiekin

JARDUERA	NOIZ
HASI BERRI DAGOEN IKASTURTEKO INFORMAZIOA EMAN. Ikasturte hasieran bilera bat egoten da ikastolaren funtzionamenduz eta hezkuntza egitasmoari buruzko informazioa emateko	Ikasturte hasieran
IKASLEEN JARRAIPENARI BURUZ INFORMAZIOA EMAN. Ikasle bakoitzaren gurasoekin elkarrizketa ikaslearen hezkuntza prozesuari buruz	Ebaluaketa bakoitzean behin
UNEAN UNEKO HARREMANA GURASOekin IZAN INFORMAZIOA EMATEKO. Unean uneko informazio ematea (oharrak idatziz, deia, ...) gertaera edo behar izan jakin batzuk direla eta.	Behar denean, behar beste saio
GURASOEI INFORMAZIOA EMAN. Ikasleen ibilbideei buruz (Banaka nahiz taldeka)	Ikasturte amaieran
IKASTURTEAREN BALORAZIOA EGIN Ikasturte bukaeran, guraso bilera orokorra egin, non egoera akademikoa eta taldeko harremanak azaltzen diren.	
GURASOekin ELKARTU HEZKUNTZA IRIZPIDEAK ADOSTEKO. Gurasoak, tutorea eta ikaslea (adinaren arabera) biltzen dira konpromisoak hartzeko, lanak adosteko, ... Gauza bera talde osoarekin behar denean.	
GURASOEN EKARPENA ERRAZTU Gurasoen parte hartzea bideratu: zertan eta nola parte har dezaketen aurreikusitako eta elkarlana egitera animatu.	

## Tutorea erakundeekin

<b>JARDUERA</b>	<b>NOIZ</b>
BERRITZEGUNEKOEKIN Hezkuntza Bereziko ikasleen jarraipena egin.	Dagokionean
IKASTOLAZ KANPOKO LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN IKASLEEN BESTE ESPEZIALISTEKIN KOODINAZIO BILERAK EGIN - Psikologoak. Logopedak. Peditrak. Psikiatrank - Partikularrak	
UDALETXEKO GIZARTE ZERBITZUEKIN HARREMANA Gizarte laguntzaileekin Kale hezitzaileekin Familia hezitzailearekin Gizarte hezitzaileekin Prebentzio eta Gizarteratze teknikaria	
PROGRAMA OSAGARRIETAN DAUDEN IKASLEEN HEZKUNTZA ESKUHARTZEA KOORDINATU	
KANPOTIK ANTOLATZEN DIREN TAILERREN INGURUAN BILERAK EGIN	
ORIENTAZIOA BIDERATZEKO KOMUNIKAZIOA IZAN	

Konpetentzia espezifikoak	Ikas mailak											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1. Zailtasunei aurre egitea, frustrazioarekiko tolerantzia izanik, eginkizuna bertan behera utzi gabe eta eginkizuna egiteko beste modu batzuk bilatuz.	X	X	X	X	X		X	X		X		
2. Eguneroko bizitzan zalantzen aurrean norberak hartzen dituen jarrereri buruz autonomiaz hausnartzea.		X	X	X		X	X	X	X	X	X	
3. Beste batzuekin taldean egin beharreko proiektuetan, adiskidetasunez eta elkarlanean aritzea.	X	X	X	X	X			X	X	X	X	
4. Lan bat egiteko jarraitutako prozesua arretaz deskribatzea eta ebaluatzea, bakarka edo taldean hausnartuz.	X	X			X	X		X	X		X	X
5. Nork bere buruarekin eta gainerakoekin duen jokabidea kritikoki aztertzea.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		
6. Norberaren eta gainerakoen baitan zer alde on dauden errealismoz bilatzea eta balioestea, mugak onartuta.	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	
7. Taldearen funtzionamendua behatzea eta taldearen jarduna ekimenez sustatzea.	X	X	X	X	X	X		X	X		X	
8. Hurbileko gizarte errealitateak hautematea eta enpatiaz eta errespetuz esku hartzea.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
9. Eskolako eginkizunak egitean, denbora diziplinaz antolatzea.	X	X	X	X	X		X	X	X		X	
10. Egoera gatazkatsuetan, elkarrizketan malgutasunez eta enpatiaz jardutea eta taldearen erabakiak onartzea.	X	X	X		X	X	X	X	X		X	
11. Hasitako jarduera eta horren eragina autonomiaz eta erantzukizunez ebaluatzea.	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X
12. Etorkizun profesionalari buruzko erabakiak ekimenez eta sormenez hartzea eta alternatibak balioestea.		X		X		X	X	X	X	X	X	X